

ARRASATE

PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2

Arrasate 1989ko /

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



GOIKOBALU


Arrasateko abesbatza



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--	--------

31 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Cuando me enamoro"
- Novedades: "Escándalo" 10,30etan.
- Jaialdia: Tahures Zurdos eta Delirium Tremens. Gaueko 11,30etan Txibiston.
- Goardiako farmazia:

1 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El cementerio viviente"
- Novedades: "En busca del valle encantado". 5 eta 7,30etan.
- Lanbada lehiaketa (bikoteka): Txibiston.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola

2 IGANDEA

- Zinea: Alai: "El cementerio viviente"
- Gabonetako jolasparkea. Kiroldegiko kantxan. Aparatuak, tailerrak, kirol animazioa, joku antolatua eta Goloka. Goizez, 11-2 eta arratsaldez, 4-8.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

3 ASTELEHENA

- Gabonetako jolasparkea. Kiroldegiko kantxan. Aparatuak, tailerrak, kirol animazioa, joku antolatua eta Pailasoak. Goizez, 11-2 eta arratsaldez, 4-8.
- Goardiako farmazia: Amazua, Santa Marina

4 ASTEARTEA

- Gabonetako jolasparkea. Kiroldegiko kantxan. Aparatuak, tailerrak, kirol animazioa, joku antolatua eta Txotxongilo saioa. Goizez, 11-2 eta arratsaldez, 4-8.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Magdalena.

5 ASTEAZKENA

- Gabonetako jolasparkea. Kiroldegiko kantxan. Aparatuak, tailerrak, kirol animazioa, joku antolatua. Goizez, 11-2. Arratsaldez itxita egongo da
- Goardiako farmazia: Ruiz Torres, Ferrerías.

6 OSTEAGUNA

- Goardiako farmazia: Santiago Español, Iurrioz.

ERAKUSKETAK

- Monterronen Arte Hamabostaldian egindako lan, bideo eta katalogoaren erakusketa.
- Fosil erakusketa Monterronen. Jesus Narbaez-ek Euskal Herrian bilduak.
- Grabatuak. Imanol Moreno, Miren Olazabal eta Goio Arana arrasatearren lanak ikusgai Elorrioko Zinemán. Zine emanaldia baino bi ordu lehenagotik bi ordu beranguago arte.

IKASTAROAK

- Astialdi monitore ikastaroa. AED elkarteak antolatuta, aste barruan zein asteburuetan. Urtarriletik Maiatzera. Izen ematea AED elkartearen lokaletan urtarrilaren 5era arte.
- Sky ikastaroa Formigalen. Besaidek antolatuta. Urtarrilaren 13-14tik Apirilaren 7-8ra. Aseguru, erremonte etab. bane. Izen emateak Besaiden egoitzan.

IRTEERAK

- Aukea eta Besaidek antolatutako Aste Santuan Alpesetara. Informazioa eta erreserbak Besaiden astelehen, astearte eta asteazkenean. 6,30etatik 7,30etara

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Ifiaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Ifiaki Aranburu,
Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.
Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Norantz goaz?

Ez naiz ohizko galdera existen-
tzialistari buruz ari. Ez diet Sartre
edota Unamunori inolako laguntza-
rik eskaini nahi. Ez; tituluaren
esanahiak alderdi lurtarragotara era-
maten gaitu, filosofia hutsaren adar
bihurrietatik urrun.

Urte bukaera honetatik izan de-
zakegun perspektiba da, besterik
gabe, "norantz goaz?" galdetzer
bultzatu nauen zioa, bizi ari garen
mundu honek itaun berbera egiten
duela deritzaidalarik. Hankaz gora
ipintzen ari diren kontzeptu, jarrera
eta joeren suntsiketak, oreka berri
baten sorkundea adierazten al du?
Nekez aurkituko dugu munduaren
historian, hainbeste birmoldaketa
eta aldaketa azaltzen dituen aurtengo-
aren gisako urte bukaerarik. Itxa-
ropen eta zalantzak sortzen ari dira
nonahi, etorkizunaren promesa eta
ezezagunaren beldurra nahastu egi-
ten direlarik.

Ekialdetik iristen ari zaizkigun
albisteak giza eta politika-lurrikaraz
mintzatzen dira. Batzuek iraultzaren
barneko iraultzatatzat daukatena bes-
teek demokraziarako irekitasun be-
zala bataiatu dute. Politika-erizleek
badute euren teoretarako nondik
edan eta ikusle huts garenok, berriz,
aurkeztuko dizkiguten diskurtsuetan
erlatibotasunezko faktorea non
aplikatu behar den asmatzen aritu

beharko dugu, jolas berria bailitzan.

Dena den, mundu honetan egu-
nero ikus ditzakegun tragedia eta
gertaera latzak gogoratu nahi nituz-
ke, beldur bainago gure arteko injus-
tizia eta kalamitateak oro gainditu
artean Gorbachov asko jaio beharko
ez ote den. "Ez da ehun urte iraun
dezakeen kalterik" dio esaerak bai-
na, historiari jarraiki, herri filosofiak
landuriko esate horrek huts egin
lezakeelakoan nago.

Munduaren Ordena Berriak ez
luke iragan beharko oraingoaren
koordinadetatik. Askoren bizkarre-
ko banaka batzuen garapenak egu-
neko zulo ilunean utziko luke giza-
dia, gaurko bi bloke militarren pan-
pin izaten jarraituko genukeelarik.
Mapa politikoari begirada arin bat
bota eta zemolako egoeratan aurki-
tzen garen egiaztatzeak aurrean
dauzkagun lan erraldoiaz jabeteraz-
ten gaitu. Urte honen bukaerak eka-
rri digun mugimendu apartak kons-
tante bat izan beharko luke, hastear
den hamarkadan gizadiaren garaipen-
a lortuko bada.

Ez dakit, azkenik, Sartre, Una-
muno eta gainerako "norantz
goaz?" galderaren erantzuna, gurea-
ri egoki lekiokkeen baina errezagoa
ez ote den.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**M
A** **ARENAZA**

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

EGINEko kontuak

Lanpostu finkorik lortzea hain zaila den garai hauetan, askotan gazteok, bereziki, ahozko kontratuak erabiltzen ditugu, honek gaizkiulertzeak sortzeko duen arriskuarekin. Eta hau da, hain zuzen, niri gertatu zaidana.

Irailaren amaieran lagun kazetari bat niregana zuzendu zen kontu honekin: EGINEko bertako korrespondentsalak kanpora irten behar izan zuela eta, ea ni prest nengoen Arrasateko orriaz arduratzeko. Nik, lan ezean, ilusioz baietz erantzun nion.

Hasi baino lehenago, Eibarren izan nintzen "Debaldea"ko ardurdunarekin. Honek nire eginkizunaren gorabeherak azaldu zizkidan: nola prestatu orria, gaiak, e.a. Soldatari buruz ere berba egin genuen eta hemen dator, hain zuzen ere, karta honen zioa. Berak "X" kobratuko nuela esan zidan, baina nik, gizarajoak, "Y" ulertu (zenbatekoak kaleratzea ez dator kontura).

Hurrengo astelehenean hasi nintzen nire eginkizun berrian. Eztabaidaren bat salbu, uste dut "Debaldea" eta Iratikoeekin izandako harremanak normalak edo onak izan zirela.

Azaroaren hasieran hileko azken bi asteetan lana utzi behar izango nuela jakin erazi nien. Eurentzat behin behineko alde egite horrek kalte handia suposatuko lukeela jakin arren, egun batzuetan herria utzi egin behar izan nuen, derrigorrez. Nire eginkizunak kanpoan behin bukatuta, nire asmoa egunkarira itzultzea zen. Azken egunetan nire ordezkoa izango zena bulegora etortzen hasi zen, eta honen komentarioengatik, nire itzuleran ere bera geldituko zela susmatzen hasi nintzen; berari galdetu eta ez zekiela ezer erantzun zidan. HBko liberatuarengana jo nuen eta honek zera esan zidan: Komite Lokalak berria jartzea erabaki du. Bale, eurek jakingo dute arrazoia, baina gauzak egiteko forma asko daude. Inolako

azalpenik ez, agur simple bat ere ez nuen jaso, ez hemengo ezta Eibarrekoen aldetik ere. "De quita y pon" -eko pieza bat bezala sentitu nuen neure burua. Gainera, lanean ibili nintzen denbora osoan, behin ere ez zen agertu nire firma egunkarian. Berriari, ostera, lehenengo egunetik eman zioten firmatzeko aukera.

Beno, honengatik ez nukeen inoiz karta hau idatziko. Kartaren arrazoia orain dator: Urriaren bukaeran nire soldatarekin txeke bat jaso nuen (justu justu nik "Y" deitzen dudan kopuru horrekin). Abenduaren 11n deitu nien Azaroan lanean ihardun nituen 20 eguneko ordainketa eske, eta hona hemen Eibarkoen erantzuna: Urriari jasotako dirua ez zen, oso osorik, niretzat. Bertan egunero kioskoan hartzen nituen egunkariak ordaintzeko, eta kiroletako kazetaria ordaintzeko (?) dirua ere bazegoen. Ondorioz, diferentziarekin Azaroaren lana ere ordainduta gelditzen zen. Hura sorpresa!, ia bi hilabete lanean ibili ostean, enteratzen naiz nire soldata ez dela Y, X baizik. Ez dakit Debaldekoak txarto esplikatu ziren hasieratik, edo nik gaizki ulertu hasieratik ere, baina txekea bialtzean uste dut zertarako zen diru hori esplikatzeko obligazioa zutela.

Juan Luis Azkarate

Irantsube eta antzerako elkarteei

Irantsubeko karteldegian irakurri dugu honelako abisu bat: Emakumeentzako debekatuta dagoela sukaldera sartzea.

Eta gu, emakumeok, ixilik. Zergatik zigor hori? Non gaude: Euskal Herrian edo arabiar nazio baten?

Gaur, salaketa hau; baina, honelako hainbat kasu agertzen dira elkarte gehienetan. Ez gara ixilduko.

Emakume talde bat


Merkatua ixtea ondo ikusten al duzu?



Maite
(langilea)
Ez dakit ados nagoen ala ez, baina betik izan dugun gauza denez, jendeari pentsaraztea normala da.



Jose Javier Etxebarria
Egia esan, ni ez naiz inoiz egon bertan, baina irekita itxita baino hobeto egongo dela uste dut.



Jesus Agirre
(langilea)
Ixtea ez dut ondo ikusten, beti eza-gutu dugun gauza da eta.




Nieves Altuna
(etxeakoandrea)
Ez dut ondo ikusten. Bertako jakiak eta, saltzeko ixtean baserritarrak nola konponduko diren ez dakit.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas (Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursallak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errabala 6, 1

besteek esana

“Durangoko azokan Platon VI, Jokin Zaitegiren itzulpena aurkeztera joan ginenean, Jokinek euskaratutako Platonen liburuak oso ondo ari direla saltzen jakin izan genuen. Bere garaian lortu ez zuena, badirudi orain ari dela lortzen Jokin”.

(X. Zubizarreta, Mondragoeko alkateak Monterronen)

“Orain arteko saioak, zuzenean ala irratiz entzun ditut, eta zuzenekoetan neure puntuazioa ematen joan naiz, epailearena eginez, eta Gernikako arratsaldeko saiorate ia guztizko kointzidentzia izan dut. Baina saio horretan ez, eta Jon Sarasuaren kasuan izan da. Nire ustez, inongo zalantza barik, saioko onena izan bazen ere, bere nortasun apalagatik eta askoren eritzirako pasatu behar ziren seiak zeintzu ziren argi zegoelako, merezi baino askozaz puntu gutxiago jaso zuen. Seguru nago, Gernikan arratsaldean enzun genuena Azpeitian goizez entzun izan bagenu, hau da, finalurreko saioetako azkena izan beharrean lehena izan bazen, Sarasua finalean egongo litzatekeela”.

(Joserra Bilbao idazleak Argia aldizkarian)

“Izenburuak (‘Komunikazio teknikak’) Fagorreko Zerbitzu Zentraletan eskaintzen den ikastaro baten izena darama, eta zorionez, bertan parte hartzeko aukera izan nuen.

Komenigarria litzateke, nire eritzi pertsonalez, hainbat eta hainbat irakaslerentzat bertatik pasatzea, ez ikastaroagatik baizik eta nola antolatu, garatu, dinamizatu eta eskaini daitekeen kurtsu bat jakin ahal izateko.


Kurtsu hau ematen duten irakasleek denbora dexente daramate ikastaro berbera eskaintzen Fagor taldeko Sozial Kontseilarien artean, eta beste batzurekin ere inpresio berdinak kontrastatzeko aukera izan dut, denok bat gatoz kurtsua oso interesgarria izatez kanpo ezin hobe prestaturik dagoela adierazterakoan (...).”

(Aitor Irure Aurki-ko langileak “TU-Lankide” aldizkarian)

Teknologia berriek gure eguneroko bizitzan badute eraginik? Alda dezakete gure bizitza?

Bai, jakina, teknologiek gure bizitzan eragina dute eta izugarria gainera. Beren eragina onerako eta txarrerako dela esango nuke. Berez teknologiak neutroak dira, ezin esan daiteke onak edo txarrak diren. Edozein modutan ere, beren erabilpena ez da neutroa. Arlo guztietan ikusi ahal dugu zenbait aurrerapen, zenbait teknologia berri, medikuntzan, irakasuntzan, lantegietako lanetan etab. etan mesedegarri direnak, lana errazteko balio izan dutenak. Edonola ere, kalte galantak sor dezaketen aurrerapenak ere denok ezagutzen ditugu. Ez da ahaztu behar teknologia berrien artean badaudela arriskutsuak ere, edo erabilpen arriskutsua eman zaienak teknologia nuklearra bera edo beste zenbait teknologia hain arriskutsuak izan gabe, beste kalte mota batzuk sor ditzaketenak.

Nire ustetan gizarte osoaren erantzunkizuna da teknologia behar bezala erabiltzera bultzatzea, teknologia mesedegarri izan dadin erabiltzera bultzatzea. Agintariena, jakina, beren gain hartu dutelako gizartearen gobernatzearen erantzunkizuna, zein herri xehearena. Nire ustez herri xeheak adi egon beharra dauka, bere inguruan gertatzen denaz jakitun egon beharra dauka. Herri xeheak galerazi egin behar du interes makur batzuk direla medio, teknologia edo aurrerapenak gaizki erabili izatea.



Andoni Sagarna
UZEL eta Elhuyarko partaidea

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

AURRERATZEKO



AIZKORA
AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturrlotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

ARRASATE
PRESS


79 71 64

ASTIALDIKO MONITORE IKASTAROAK

- Antolatzaile:* AED Elkarte
Ikastaro emale: Euskal Begirale Eskola (E.B.E.)
Noiz: Urtarriletik maiatzera. Aste barruan eta
 aste bukaeran
Matrikula epea: Urtarrilak 5
Informazioa: AED ELkartea,
 Pablo Uranga 4, behea. Tfnoa: 79 54 46 Arrasate.

Plaza Mugatuak!!!

*Ikastaro amaieran astialdiko
 monitore titulua eskuratuko da*



ZENBAKI

**Kontabilitatea
 Fiskalitatea
 Lana
 Zuzenbidea
 Juridikoa
 Finantzaketa
 Aseguruak**

Basabe Industrialdea ARETXABALETA Tfnoa: 79 88 75 79 75 99

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
 Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

**ARRASATE
 PRESS**

79 71 64

Urteberri egunean,
eguerdiko 12etan TVE-ko 2. katean :



MUNDUKO
SKY JAUZIEN
TXAPELKETA

Babesleak:



LORAMENDI
KIROLAK

INTERSPORT



PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa
eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

prentsaren begia

OSTIRALA 22

CORREO: "Ganadu, barazki, hegazti eta gazta-lehiaketak Arrasateko Santamas jaiaren ospakizunetan"

DV: "Gaur Santamasak: zenbait lehiaketa, herri-kirol eta bertsolariak"

EGIN: "Dena gertu Santamasak egunerako, protagonista den jai euskalduna"

LARUNBATA 23

CORREO: "Baserritar partehartzailen kopurua txikiagoa Santamasetan azoka txiki geratu delako"

DEIA: "Goikobalu abesbatzak gaur gauean kontzertu interesgarria eskainiko"

DV: "Arrasate Musikalek eta Goikobalu Abesbatzak kontzertu interesgarria eskainiko"

EGIN: "Aurtengo Santamasak euriz eta milioiz bustirik igaro dira"

IGANDEA 24

CORREO: "Abokatutzaren iturriek 'Instrukzioko epaitegia egiteko Arrasateko indar bizien interes eskasa kritikatu"

DV: "Amnistiaren aldeko batzordeak PSE, EA, PNV eta EEren mozioa 'hipokrita eta zinikotzat' jo"

EGIN: "Gertorak merkataria eta tabernariei bidalitako kartetan koakziorik egin duela ukatu"

ASTEARTEA 26

EGIN: "LAB: 'Roneoko zuzendaritzak punturik garrantzitsuenak negoziatu ez'"

ASTEAZKENA 27

CORREO: "Deba Garaiko Udal Elkarteak, baremoen arabera, eskualdeko minusbalituentzako zentruak finantzatu"

DV: "Erdiko-kaleko suteak bi etxebizitza partzialki kiskali; ondorioz, 'Casa-Luco'n 20 milioiko galerak sortu"

EGIN: "Sute batek Erdiko kalean bloke osoa suntsitu"

OSTEGUNA 28

CORREO: "Bihar Arrasaten Pleno Bereziak euskal presoak laguntzeko kanpainari buruzko mozioa aztertuko"

DEIA: "Ferixalekuan pilotalekua eraikitzeko lehiaketa"

DV: "Gaueko plenoa: Ferixalekuko pilotalekua eta Iturripeko kiroldegia egiteko obren deialdia"

EGIN: "Arrasatek gaur 80. hamarkadako gertakizun bitxiena ospatuko"

Usteak uste...

Osasunez, oraingoz behintzat, ondo gabiltzanok hori egiaztatzeaz gain, Santo Tomas hauean loteriarren otarra jaso dutenengatik posteko aukera izan dugu. Ehun milioi horiek ez dituzte Arrasateren arazoak konponduko, baina herritar zenbaiten aurrekontuak dexente osasuntsuagoak izango dira aurrerantzean, eta horrek poza ematen du.

Euskaldunoi, oro har, ez zaigu diruaz gehiegi eta argiegi hitz egiterik gustatzen eta hori garbi gelditu da oraingoan. Ia astebete pasatu eta gero, apenas ezagutzen dugu zortedunik. Zer gerta ere, hobe isilik gordetzea. Hori behintzat somatu da kasu honetan.

Argi gelditu da beste behin asko jokatzeko dugula bai loterian, zein kiniela, loto eta halakoetan, beti ere bapatean aberasteko itzaropenarekin. Santo Tomas eguneko loteriarrena jakin bezain aguro egindako galdeketa azkar batean hainbat mondragoetarrek aitortu zigunez, bost, hamar eta baita hamabost mila pezeta jokatu izan zuten hogeitabiko loterian.

Kritiko askok diotenez, loteria eta gainerako azareko jokoak pobrentzako beste zerga bat gehiago dira. Baita era horretako jokoek ez dutela lanaren etika bat ere zabalitzen, kontrakoa baizik, golperik jo barik derrepentean aberasteko ilusio faltsuarena, alegia. Guzti hori egia izango da, baina baita etxea, berebela, umeen eskola eta eguneroko abar luze horrekin bizi garen bizidun sufrituontzat sekulako tomaldia dela ere. Harek bai kontrastanak!

Joxe Aranzabal



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: **Otalora 1ean**

Biltegi berria: **Meatz-Erreka**

ARRASATE



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Diru-laguntzen eskaria dendariei

Arrasateko presoen eta errefuxiatuen senideei laguntzeko taldeak eskaria luzatu zien herriko hainbat dendariri, familia horiei laguntzeko hileroko kuota jakin bat ordain zezaten, hala nahi izanez gero.

Dena den, horren berri izan bezain laster bloke demokratikoa deiturikoa osatzen duten alderdi politikoek (PNV, PSOE, EA eta EE) pleno berezia egiteko deia zabaldu zuten, bertan mozio bat aurkezteko. Plenoa ostural hontan izango da.

Mozioan puntu hauek azpimarratu nahi dituzte: merkatariak sufrizten ari diren presioen aurrean ezezkorik handiena adieraztea, bai

laguntza eta elkartasuna adieraztea ere, eta beldurrez laguntzera beharturik izan ez daitezen deia zabaltzea. Aldi berean, alderdi politiko hauek zera argitu nahi dute, Udala presioa eta beldurra instituzionalizatzearen aurka agertzen dela.


Egoera horren aurrean, 22an Amnistiaren aldeko komiteak prentsaurrekoa eman zuen hainbat gauza argitzeko. Guztia bloke demokratikoa muntaia zela salatu zuten, manipulazio hutsa, presoek bizi duten egoera tamalgarria ahazteko. Halere, segurutzat eman zuten dendarien borondate ona, eta ondorioz, baita haien laguntza ere.

Kiosko berria plazan

Ostegunean, abenduak 28, gai garrantzitsua jorratu zuen Udalak pleno berezian. Onartu ere onartu zuten, hain zuzen ere, Arrasateko plazan kiosko berria egitea.


Kioskoak orain hogeitamar urte kendu zutenaren itxura berdina izango du, eta plaza erdian kokatuko da. Dena den, proiektu honek arazo ugari planteatzen ditu, Udaltzetik desagertu egin bait ziren kiosko zaharren planoak.

Hori dela eta, Udaleko zenbait teknikari Diputazioarekin harremanetan jarri da, bertako artxibotik planoaren kopiak ote dauden jakiteko. Halere, herritarrei deia luzatzen zaie, plazako argazki zaharrak izanez gero (kioskoa bertan dagoela, jakina), argazki hoiek Udaleko idazkaritzara eraman dituzaten. Aurrez mila-esker!



Bainugela-erakusketa

I R E K I B E R R I A !!!



ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE



Anbulategiak milioi erdiko afaria

Giza ekintzetan gastatu gabeko diruarekin ordaindu

Osakidetzak diru dexente sor die Deba Garaiko langile askori, ordu estrak direla eta; larrialdi zerbitzuak gaizki hornituta daude; eta bailarako langileen artean konbenio berria oraindik aplikatzen ez zaielako ezin negona zabaltzen ari den honetan, Mondragoeko Anbulategiko zuzendariak, Mertxe Ruiz de Eginok afari bat egitea erabaki zuen Osakidetzaren kontura, bailarako langileak beren bikoteekin gonbidatuz.

Horretarako aurtengo aurrekontuetan giza ekintzarako gastatu

barik zegoen milioi erdia erabiltzea okurritu zitzaion.

Guztira ehun pertsona inguru bildu ziren abenduaren 20an, Arantzazura bideko Zelaizabal jatetxera. Menua, hauxe: zizka-mizkak (frituak, almejak...), solomotxoa, pastelak, kafea, purua eta kopa. Ostean, Eguzki taldearen eskutik dantzaldia goizalderarte. Dena Osakidetzaren kontura.

Azkenean milioi erdia nahikoa ez eta bakoitzari 300 pta. eskatu zizkionten txanpaina ordaindu ahal izateko.

Sebero Altube Beka

Pasa den astean erabaki zuten Sebero Altube beka Jerardo Elortza ofiatiarrari ematea. Gogoratu beka honen helburua Arrasateko euskeraren ikerketa linguistikoa egitea dela. Horretarako 700.000 pta. emango zaizkio Jerardo Elortzari, bere lana hamalau hilabeteko epean amai dezan.

Jerardo orain 45 urte jaio zen Ofiatin. Alemaniar filologia ikasketak burutu zituen Deustuko unibertsitatean, eta Alemanian bertan ere urte t' erdi eman zuen bere ikasketak sendotuz.

Bergarako ikastolan hiru urtez lanean aritu eta gero, gaur egun UNEDen Euskal Departamentuko arduraduna dugu. *Arrasate Pressen* ere kolaboratzaile dugu. *Fotozahar* atalean.



ASEGURU ARTEKARIA
Zure esanetara gauzkazku!

Maalako Errabala 33, Etxabea.
Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE



Jose Letona, loba Amaiarekin

Jose Letona Bekak

Arrasateko geologia eta historia ikertzeko

Arrasateko Udalak onartu berri ditu Jose Letonaren izenarekin sortuko diren beken oinarriak. Beka horiek bi motatakoak izango dira: Bata "Arrasate eta inguruetako geologi ikerketa" egiteko, eta bestea "Arrasate frantsez okupazioaren garaian (1807-1814)" aztertzeke.

Geologi ikerketan: lurren adina eta ezaugarriak, lur horien sortze garaia, giro honetako fosilak, eta mapa geologikoa egitea (1: 20.000 eskalan). Ikerketa egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, 250.000 pta.ko dirulaguntzaz.

Azterketa historikoan: Aintzina erregimenaren bukaera (Mendebaldeko Europaren egoera 1800-1815 urteen artean), Arrasateetik frantsez armada pasa zeneko garaia (XVIII. mendearen amaieran), Arrasateko egoera frantsez okupazioak iraun zuen bitartean (Egoera politikoa, ekonomikoa, erligioso eta soziala), eta okupazioak izandako arrakasta 1814etik aurrera. 18 hilabeteko epea eta 500.000 pta.

Bekak lortzeko, 1990eko urtarrilaren 26a baino lehen aurkeztu behar harko dute hautagaiek.

Eskiatzera irteerak

Urtarrilaren 13an hasi eta apirilaren 8a arte Formigalera irteerak egingo dira aste bukaera guztietan, Aukea eta Besaide Elkartearen eskutik. Eski alpinoa egiteko asmoz, irteerak larunbatean izango dira goizaldeko 5etan, eta itzulerak igandean, gaueko 9ak aldera.

Prezio ezberdinak egingo dira: Besaideko bazkideentzat 6.800 pta, 17 urtetik beherako bazkideentzat 5.500, Arrasaten bizi diren 17 urtetik beherako bazkide ez direnentzat 5.800, gainontzeko arrasatearrentzat 7.300 pta, eta kanpotarrentzat 8.300.

Diru horrekin haxe ordaintzen dute: alojamentua (*Nievesol* hotolean, pentsio erdia), erremonteak (erabilera mugagabea larunbat eta igandeetan), garraioa eta istripu aseguruua. Materiala eta klaseak bakoitzaren kontu geldituko lirateke.

Informazio eta erreserbak, Besaide Elkartearen egoitzan astelehen, astearte eta asteazkenetan, 6,30etatik 7,30etara. Baita 79 84 74 telefonoan.

Jaiotzak

Sanchez Lopez, *Urko*. Abenduaren 11an
Martin Varela, *Naroa*. 17an
Amilleta Biain, *Ander*. 18an.
Buruaga Albeniz, *Amaia*. 18an.
Odriozola Casado, *Naroa* Macarena. 19.
Ayala Igartua, *Harriet*. 21ean.
Losada Elorza, *Ane*. 21ean.
Romero Ruiz, *Ander*. 23an.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Udalako Ingurugiro Eskola

Plangintza pedagogikoa eta ordainketa finkatuz

Ostegunean, abenduak 21, Arrasateko Udala eta Eskoriatzako Irakasle Eskolaren arteko aurre-hitzarmena sinatu zen, zer eta Irakasle Eskolak Udalako ingurugiro eskolaren plangintza pedagogikoa prestatzen lagundu eta laguntza honen ordainketa finkatzeko.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza sailak bultzatzen duen proiektu honetan, interesgarritzat jotzen da Eskoriatzako Irakasle Eskolaren laguntza honako eremu hauetan:

— Proiektuari dagokion planifikazio eta ekitaldien prestakuntzan.

— Ingurugiro eskolaren inaugurazioaren ondoren, bertako zuzendaritza pedagogikoa.

Gauzak horrela, Irakasle Eskola Udalako Ingurugiro Eskolaren zutabe bihurtu nahi dute.

Aurre-hitzarmena

Aurre-hitzarmen hau aldi batekoa da, abendutik apirilaren bukaera arte indarrean egongo delarik. Esan bezala, bere helburua Eskoriatzako Irakasle Eskolak eman dezakeen laguntza zehaztu eta laguntza horren ordainketa finkatzea litzateke.

Irakasle Eskolak Eugenio Astigarraga eta Xabier Arregi aukeratu



Ordezkariek aurre-hitzarmena sinatzen

ditu, astean bost ordu eskain diezaioten Arrasateko Udalaren UIEri. Aipaturiko irakasleen lana ordaintzeko, Udalak orduko 3.000 pta. emango dizkio Eskoriatzako Irakasle Eskolari.

Halaber, irakasleok proiektua lantzen ari diren bitartean izan daitzkeen gastuak ordaintzeko, eta gai honetarako lan egiten ari diren M. Candelas Fernandez eta Ane Miren Guemes andereñoak Eskoriatzako Irakasle eskolan leudekeen bitartean

sor litezkeen gastuak ordaintzeko, 20.000 pta. ko dirulaguntza eskuratuko du hilero aipatutako eskolak aurre-hitzarmen honek dirauen bitartean.

Azkenik, behin Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak UIE proiektuari buruzko azken jarrera argitu eta aurreproiektua burutu ondoren, Arrasateko Hezkuntza sailak beste hitzarmen iraunkorragoa sinatzeko asmoa du aipaturiko proiektuari buruz.



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

Dultzearen autozerbitzua



Z
o
r
i
o
n
a
k

U
r
t
e
b
e
r
r
i
o
n



Goizean goiz aparteko giroa izan genuen bai azokan eta bai kalean ere. Iturengo Tunturroak goizeko bederatzietan ekin zieten joareei eragiten Musakolan, eta eguerdia bitartean hainbat jira eta bira eman zizkioten herriari. Hamar urte gutxienez badaramate Arrasatera etortzen.

Eguerdian heldu zen loteria-ren albistea, Mondragoen ehun milioi erori zirelarik. Jende gehiena kalean zegonez, poliki zabaldu zen berria. Erdiko kaleko loteria saltzaileek berehala jarri zuten kartela: "41.367a hemen saldua", erdaraz baina. Trinidad Ruiz de Alegria eta Mercedes, haren loba, pozik zeuden eta telefonoz jasotzen zizutzen deiak erantzun ezinik. Madriletik Joaquin Pratek



deitu zien, baina zenbaki sarituan partizipazioaren bat izanik ere, askok ez zuten bertan agertu nahi izan.

• • • •

Kontua da oso jende gutxi azaldu dela sarituen artean, lurrak jan balitu bezala. Prentsan agertu denez, Mercedesi berari tokatu omen zaio zati bat. Nolanahi ere, badirudi asko banatu dela. Bejondaizuela zortedunei!



Santo Tomas eguna feria eguna dugu. Datorren urtearen bukaeran itxiko den Azoka plazan antolatu zen aurten ere erakusketa; barazkiak, fruituak, gazta, etab. edonor asetzeko adina aurki zitezkeen bertan. Azkenean, produktu onenen sariak kanpotarrentzat izan ziren. Zorionak eurei!



ARAMBURU COTEMAR


garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdialak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aukiak



Kontzesifto 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Euria ere izan genuen Santo Tomas egunean, eta jaia apur bat desluzitu zuen arren, inor gutxi kexatu zen. Euriak, hala ere, ekarri zuen ondorio txarrik. Ordubiak aldean, Kataide industrialdearen ondoan sekulako istripua izan zen, bost mutilekin zihoan furgonetak kamioi baten kontra egin zuenean. Kamioiaren atzetik zetorren R-5ak ere kamioia jo. Total, furgonetako bostak egoera larrian eraman zituzten Zentrora, eta gero handik Gasteiz eta Donostiako zenbat ospitaletara.



Roberto Mendí

Santamasetan txerria izan ohi dugu protagonista nagusienerarikoa. Jendeak zozketarako rifak erosten dituen bitartean, txerria hor egoten da lasai, jaten, jabe berriaren zain. Aurten goan, Zeziaganean lan egiten duen Ines Gardokirentzat izan da. On egin!

• • • •

Santamasak bukatu bezain laster, 24ean, Txoronpio eta Olentzero heldu zitzaizkigun herrira. Gure *buru haundia, entendimentuz jantzia...* urtero-urtero bezala hemen, batzuentzat opariak eta besteentzat ikatzak ekartzera. Izan ere, Harristiren antza pixka omen zeukan Olentzerok!

Uribarri 12,
Tfnoa: 77 00 67

ARRASATE



BETI ONA

Gimnasioaren ordutegia
Lanegunetan: 9-12,30 eta 15-21,45
Larunbatetan: 10-13

KUOTAN SARTURIKO ZERBITZUAK

- Mantenimendu-gimnasia
- Pisu-gehitze edo gubxitzea
- Beste kirol batzuetarako prestakuntza
- Gizonezko eta emakumezko kulturismoa
- Fitness
- Lesioen osaketa
- Sauna

APARTEKO ZERBITZUAK


- Masajea
- Estheticienne

GIMNASIOA

Txandaka

Lana, geroz eta etxetik urrunago

Etengabeko aldaketan ari da gizartea: hasi famili barruko bizimoldetik eta gizarte-antolaketa osoraino, gaztaroko ikaspideetan, lagun arteko harremanetan edota opor-bakazioetan lehen ez bezalako jokaerak, bizimoduak eta jardun-estiloak ari dira nonahi sortzen eta zabaltzen. Gizarte-bizitzaren erabateko antzaldatze horretan bada



Mikel Zalbide *

beste puntutxo bat ere, neurritz apalagoa izan arren kontuan hartzea merezi duena: etxetik lanerako distantzia fisikoa handitzen ari da.

Aldaketa honen iturriak, iturri batzuk bederen, aski ezagunak dira.

Horrela,

a) lan-merkatuaren dibertsifikazioak eta kualifikazio profesional berri askok lan-mugikortasuna indartu egin dute. Mugikortasun honek badu, neurri batean, joan den mende-amaieratik aurrera maisu-maistra eta katedradunek, karrerako militarrek eta burokrazi aparatuek estataletako funtzionari gora-nahi desberdinek agertu izan dutenaren arrastorik; baina ez da gauza bera.

b) Senar eta emazte, ezkontide biak (eta ez bietako bat bakarrik, orain punturarte bezala) joaten dira orain etxetik kanpora lanera.

Eta, lan-merkatuak eraginik, geroz eta ususago gertatzen da senarrak herri batean eta emazteak bestean jardun beharra.

c) Etxebizitzaren prezio-egiturak, bikote gehienak autodun izateak eta garraio-sare berriek eraginik, azkenik, ezkonberri asko hiri nagusietatik kanpora joaten hasi dira, etxe bila. Languneak, sektore tertziariokoak bereziki, hirigune zabalenetan kontzentratuz joan diren heinean etxetik lanerako distantziaren zabalkuntza sortu da hortik ere.

Arrazoi bat dela edo bestea dela, ondorio nabarmena ari da han-hemenka nagusitzen: geroz eta herritar gehiagok karreteran edo garraio-bidean, etxetik lanera

eta lanetik etxera, pasatzen du eguneko hainbat eta hainbat ordu. Bazkaldu ere, ezinbestean, etxetik eta are herritik kanpora egiten du halakok, egunero-egunero.

Nola egiten da garraioa? Ez dira falta, batez ere etxetik lanera kilometro asko ez direnean, autoz dabilzanak: nor bere autoan edo, hiruzpalau lankide/herrikide batera bildurik, bakoitzarenean txan-

daka. Kilometro gehiago direnean eta langile-kopuru handiko enpresa publiko zein pribatuetan, aldiz, badirudi autobusa dela garraio-bide nagusia. Distantzia handienetarako eta "punta"ko profesioetarako, azkenik, hegazkina geroz eta maizago erabiltzen da: hiriarteko intercity edo puente aereoak, hasieran noizbehinkako lagungarri ziratekeenak, asko ari dira ugaritzen; batez ere hiriburu nagusien edota ekonomi jardunaren bilgune jakinen artean ari da hori gertatzen.

Eta gure artean, zer? Nere buruaz (eta inguruko hainbatentzat) hitzeginek gaur-gaurkoz autobus-formula indartzen ari dela esan behar: honen adierazgarri dira, besteak beste, Bilbo eta Donostiatik Eusko Jaurilaritzara jende-garraio dabilzan autobuskada horiek. Epe ertainera begira badirudi, aldiz, Tren Azkar edo TAV delako horrek buruhaute bat baino gehiago kentzen lagundu beharko lukeela. Baditu autobusak bere alde onak: prezioa, talde-neurri malgua, nondik norako askatasuna eta aski ibilera kronometratua. Baita eragozpen astunak ere, ordea: hankak luzatzeko eta gorputza libratzeko eragozpena, irakurri edota idazteko zailtasuna... Txikikeriak irudituko zaizkio problema horiek, agian, irakurle bati baino gehiagori. Egunean hiru edo lau ordu horrela dabilenari galdetzea du, nolana ere, halakok: garbi konturako da, hartatik, egunetik egunera hazten ari den kezkabide eta eztabaida-iturri dela laneko kontu hau. Aurreratzean areagotu egingo den arazo baten aurrean gaude, itxura osoz.

(* Hezkuntza Saileko Euskara Zerbizuko Arduraduna

Sutea Erdiko Kalean

Abenduaren 25ean, Eguberri eguna, izugarritzko suteak jo zituen "Casa Luco" gaineko etxebizitzak. Gaueko 11,30etan hasi, eta goizaldekoko 3,30ak arte luzatu zen Ofiatiko suhiltzaileen lana. Ondorioa, bi etxebizitza pikutara, eta hogeit hamar milioitako kaltea etxebeheko jantzi-dendan.

Hurrengo egunean ere, badirudi sua berriz indarrean sartu zela. Susto galanta, baina oraingoan errazago menperatu zuten.

Zenbait herritarren artean, egon diren atzerapenak direla eta, honako galdera sortu da, alegia, zergatik ez dagoen suhiltzaile parkea Arrasaren, halako kasuetan baitabateko erantzuna emateko?

Zabor bilketa

Deba Garaiko Udal Elkarteak jakin erazi digunez, abenduaren 31ko zabor bilketa aldatu egin behar da, Gabonzahar jaia delako. Egun horren ordez, bilketa 30ean.

Iturripe eta Feriala

Osteguneko plenoan jorratu ziren gaien artean, besteak beste Iturripen eta Ferixalekuan egin behar diren obretarako deialdiak luzatu ziren.

Landaluze urdaitegia

Espezialitateak:

Urdaiazpikoa
Iberikoa
Ahate-gaiak

Foie
Confit
Bloc

Serranoa
Paletilla
JATETXETARAKO SALMENTA

Magret
Pate

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE

Izen Propioak



Urtarrilaren 7a arte luzatuko da Monterronen herriko 17 artistak Arte Hamabostaldian egindako lanekin antolatatu duten erakusketa. Argazkiak, bideoak, pinturak, grabatuak..., aurrerantzean guztiak ere Udalaren kontu geldituko direlarik.

■ Jesus Mari Herrasti, 43, aretxabaletarra da Fagor taldeko lehendakari berria, karguan Alfonso Gorrofiogoitia ordezkaturik. Jesus Mari injeneru teknikoa da, EPPn eta Donostian ikasia. Copreciko Batzorde Zuzentzaileko buru, Ularco pertsonal zuzendaria eta, 1982tik aurrera Arrasate kooperatibako gerentea, besteak beste. Bi legegalditan Aretxabaletako alkatea izan zen, EAJ alderdiaren zerrendetan.

Izugarrizko arrakasta lortu du egunotan Monterronen ikusgai dagoen fosilerakusketak. Jesus Narvaezen eskutik, milioika urte duten aztarnak hurbiletik ezagutzeko aukera paregabea.



■ Eusebio Osa, 53, Elorregi auzoko sanprontziotarrak ikerketarako Azkue Saria eta 500.000 pta. irabazi ditu "Euskararen hitz ordena..." doktorego-tesiagatik. Eusebiok euskararen morfosintaxia irakasten du Gasteizko Irakasle Eskolan.




Hemen duzue Musakolako florea, Txango taldea. Urtean behin guapo-guapo jarri eta txango bat egiten dute. Azken uztailean Getarira joan ziren. Argazkian Juan Sebastian Elkano txangolari famatuaren aurrean.

■ Iñaki Galdos, 23, oñatiarra Aloña Mendi Kirol elkartereko pilota sailaren zuzendari izendatu dute, Julian Doradoren partez. Iñakik Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Orain Zientzia Politikoak ikasteari ekin dio Bilbon.

■ Deunoro Otero, 30, arrasatearra urtebeterako kontratatu du Arrasateko Udalak drogomenpetasunaren prebentziorako udal zerbitzuan lan egiteko teknikari moduan. Psikologian lizentziatua, Asgagintza mugimenduan ere ibilia da.

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

ARRASATE PRESS

79 71 64

Goikobalu ilusioz etorkizunari begira

Arrasateko ahotsak biltzeko jaiotako abesbatza

Gure herrian abesteko edozein aitzakia ona dela esan daiteke. Nork ez du abestu "Boga-boga" edo antzeko abestiren bat afari edo parranda egunetan? Aurten SUDC erakundeak herrian horren hutsunea zegoela eta korala martxan jartzeko ideia izan zuen eta koroan parte hartzeko prest azaldu den jende ugaria ikusita, badirudi herritar askok somatzen zuela hutsune bera. Abesbatza jaiotako berri honek dagoeneko bi ekitaldi burutu ditu, Ordizian lehena eta Santamas jaiak eta Gabon egunak aprobetxatuz, hil honen 23an Arrasaten bestea.



Saió bikaina 23an Parrokian eskainitakoa

SUDCek bultzatuta

SUDC erakundeak herriak dituen gabeziak ikusi eta begiratzuz, burutu daitezkeen eskaintza berriak aurri-kusten ditu. SUDCek aurtengo urterako helburu nagusi gisa Trikitixa eskola eta Abesbatza planteatu zituen eta berauek sortzeko lanei ekin.

Aurten betetzen dira Arrasateko koruak zarzuelak abestu zituen lehen aldiaren 30. urteurrena eta koral berria sortzeko une aproposa izan zitekeela pentsatu zuten.

Abesbatza sortzeko herrian musika munduan lanean diharduten zenbait pertsonarekin harremanetan jarri zen. Guztiek ideia begi onez ikusi zuten, baina inork ez zuen nahi izan erantzunkizuna bere gain hartu. Horrela bada, urte erdi pasa zen eta SUDCekoak etsita zeudenean, Gorosarri abesbatzaren sortzailea, Luis Ignacio Ruiz de Alegria, Arrasaten

lan egiteko prest egon zitekeela jakin zuten. Beraz, beronekin harremanetan jarri eta abesbatza berehalakoan sortu zen.

Arrasatearrek erantzun ezin hobea

Goikobalu abesbatza sortzeko arrasatearrei, prentsaz, irratiz zein ahoz luzatu zitzairen deialdia. Abesbatza lehen aldiz bildu zenean 100

Korua SUDC erakundearen eskutik sortu bada ere, gaur egun erakunde autonomoa da eta beren gain hartu du koruaren nondinorakoei dagozkien zereginen ardura guztia.

Diru arazoak

Gaur egun edozein gauza antolatzeke dirua behar dela gauza jakina da. Goikobalu salbuespena ez denez, Udaleri 1.800.000 pta.ko subentzioa eskatu zion, zuzendariaren joan etorriak -Gasteizen bizi bait da-, uniformeak, pianoa eta zenbait armonika erosteko. Edozein modutan ere, ez dute eskatutako diru guztia lortu eta Udalak 600.000 pta.ko dirulaguntza eman die. Hau ez da diru iturri bakarra, LAKk beste 50.000 pta. eman bait die eta abesbatzeko kide bakoitzak 500 -langabetuek- eta 1.000 pta., gainontzekoek, eman bait dute. Diru horrekin orain arteko zorrak ordaindu ahal izan dituzte, eta gaur egun egora ekonomiko onean daudela esan daiteke.

Abesbatzaren arazorik larriena lokalarena da. Gaur egun beren entseguak Arrasate Musikal-en eta Abade etxean burutzen dituzte, abesbatza beste erakunde batzuen mende aurkitzen delarik beren entseguak antolatzeke orduan. Goikobaluko lehendakari den Jose Ignacio Agirrek ondokoa azaldu digu "abesbatzan, jende gazteak ere parte hartzen du, entseguak gaueko

Abesbatza sortzeko, deialdia egin eta astebetara 100 pertsonak emana zuen izena

pertsona hurbildu ziren; dena dela, lan arazoak direla eta, zenbaitek utzi egin behar izan du. Gaur egun 78 pertsonak osatzen du Korua, tartean gazte ugari

8 edo 9etan egin behar izaten ditugunez, oso berandu amaitzen dugu eta gazte horientzat 11etan etxeratzea arazoa da".

Ospitale Zaharra zuten begiz jota,

jota, baina ospitalea telebistari eskaini dionez Udalak, beste lokalen baten zain daude une honetan.

Jende gehiagoren bila

"Norbaitek nahikoa garela pentsa dezake, baina korua ehun pertsonak osatzea litzateke, norbaitera alde egin behar dugunean larogehiren bat beti libre izateko". Hau dela eta deia luzatzen diete arrasatearrei eta bereziki gazteei koruan parte har dezaten.

Goikobalu abesbatzak musika polifonikoa zein abesti herritarrak abesteko asmoa du. Abesbatzak Santa Barbara parkeko goiko zelaiaren izen bera darama eta ilusioz beteta aurkittuko ditugu aurrera egiteko prest



Ikus daitekeenez gazte ugari

Ilusioz gainezka

Koruan abesteak lan gogorra egitea eskatzen du, jendeurrean abestean maila ona eman nahi baldin bada behintzat. Aho-tsak landu, abestiak ikasi eta zuzendariaren esanei erantzun beharra dago. Goikobalu abesbatzak irailetik aurrera astean bi egunetan egiten ditu entseguak, astelehen eta asteazkenean, hain zuzen. Lehen entsegua taldeka egiten da, tenoreak, bajuak, sopranoak etab., talde bakoitza bere kasa. Bigarren entsegua berriz, nagusia dela esan daiteke, zuzendaria bertan dagoela koro guztiak abesten bait du.


Entseguetara orain arte behintzat, koruko kide guztiak joan ohi dira, berauen lan egiteko gogo garbi erakutsiz. Parte hartze on honek, denak harrিতa dauzka, ez bait da oso normala horrenbeste jende hain gogo onez ikustea.

Koruan abesteko ez dago solfeo

jakin beharrik, doinuak buruz ikas daitezke eta. Edonola ere, partiturekin lan egin ohi dutenez, berauek irakurtzen jakitea ez da inolaz ere kaltegarria. Hau dela eta, Goikobalu abesbatzak solfeo ikastaroak antolatu ditu, ez dakitenek ikasteko aukera izan dezaten. Solfeo ikastaro hauek Goikobaluko zenbait kideren esku daude, koroak autonomo izateko nahia du eta.

Lanean diharduten hilabeteetan abesti ugari ikasi dute; hala ere, zuzendariaren ustez, abesteko era findu beharra dute.

"Ezjakinon ustetan ondo abesteko indartsu abestu beharra dago. Abesteko aukera dugunean ahalik eta ozenez abesten ahalegintzen gara. Koroan berriz, leunago abesten ikasi behar dugu".



Goikobalu
ABESBATZA

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfifnoa: 79 89 89 ARRASATE

GOROSTI
Jatetxea

GERARDO ALUTID - ISABEL CANO

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

IGARO USAINDEGIA
Kosmetika eta opariak

ANA ETXANIZ Estetika zentria

Depilazioak, masajeak.

Barrenkale 27, Tfnoa: 76 17 72 BERGARA

Garibai

5

Jai zoriontsuak
opa dizkizu

Zabalik goizeko 7etatik
aurrera

Garbai 5, Arrasate

olioak,
lientzoak,
Artea
akwarelak eta
eskulanak
Ferrerias 25

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZANITZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Herrerako kartzela, hesiaz kanpoaldetik

Total, hileroko bidea

Jon Sarasua

ETAsortu zenetik mondragoetar dexente izan dira nola edo hala borroka armatuaren bidea aukeratu dutenak. Batzuk bizia galduz, beste zenbaitek armak utzi eta bide berriei ekinez. Hala ere, auzia konpondu bitartean, hogeitabat dira Estatu espainiarreko espetxeetan preso dauden arrasatearrak. Lerro hauetan horien familietako baten lekukotasuna dakarkizuegu.

Astearte bateko goizeko hamarrak dira Arrasaten. Josepa Arregi, Jesus Mari Zabarte presoaren ama semea ikustera doa, bere iloba Felix lagun hartuta. Astearte da, baina pentsamendua asteazkeneko ordu-bietan jarrita dauka, bisita orduan.

Bitartean zenbat bide eta zenbat ordu, Ceutaraino. Total, hileroko bidea.

Zumarragan bileteak erosi eta Paris-Algeciras trenean sartu dira, litera departamentuetan. Eskerrak udaran adina jende eta trafiko ez

dabilela. Altsasu, Iruñea, Zaragozako geldiunean kafesne bat hartu, Madril, Andalucia osoa eta Algeciras. Trenean 20 ordu egin ondoren gaizeko 7,30etan iritsi dira Algeciras-era, bertan ordu batzutan itxaron ondoren barkua hartu, mediterraneo zeharkatu eta Ceutara. Eguerdiko ordubietan bisita.

Ceutatik aparte samar, kuartel militarrez betetako kale luzea igaro ondoren, txabola artetik eskonbro gainean egindako bide batetik igoz



Jai zoriontsuak

TROKO
JANTZIDENDA

Olarte 6, Tfnoa: 79 46 94 ARRASATE

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeke,
arratolak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

Amparo Lopez:

Familiak desantolatzea nahi dute

Presoak ikapatuta egon dira orain arte eta orain borroka bide berriei ekin diete. Instituciones Penitenciarias delakoari hainbat puntu galdatuz: Preso politikoak biltzea eta denontzat errejimen berdina jartzea, izan ere orain gradu ezberdinetan jarri bait dituzte beren arteko zatiketa lortzeko. Beraiek, denak batera jokatzeko ari dira, zatiketarik ez dagoela eta denak batera daudela erakusteko.

Jasan duten sakabanaketaren helburuetako bat familiak desantolatzea da. Presoak tokiz aldatu ondoren familiak antolatzea lortzen dugun bakoitzean, oharu orduko berriz aldatzen dituzte. Gainera, presoak banatzea eta eritzi publikoan eragina izango duen egoera jasanezina sortzea dute helburu. Gero, batzu libre utziz, Instituciones Penitenciarias-ekin ados daudela sinestarazi eta presoaren artean zatiketa inpresioa sortzea nahi dute.

Irtenbideaz galdetzen didazue. Guzti honen irtenbidea Aljeriako mahaiari dago, han hitzegin ziren zortzi puntuetan, negoziatzean. Bi parteei daukate negoziatu beharra. Zortzi puntu horiek, minimoak zirenak, Euskal Herri osoan eskatzen dituenak hartu eta horietatik abiatu behar da, lehenik amnistia lortuz, hori bai. ETARI protagonismo gehiegi ematea litzatekeela? Bueno, ba partidu guztiek parte hartzeko eran egin dadila, denon protagonismoarekin, baina konpon dadila.

Amnistiaren aldeko batzordetako



Iazko martxan lau autobus irteerak ziren Mondragoetik Herrerara

iristen da kartzelara, Franco-k militarrentzako eraikitako espetxera. Felixek badu nahiko kezka, familia-koa izan arren sartzen utziko ote dioten. Ez litzateke lehenengo aldian bidaia osoa egin eta azalpenik eman gabe satzen utzi ez diotena, arauetan argi eta garbi jartzen badu ere. Karnetak eta paperak hartu dizkiete, gela batean zutik itxaronarazi eta bisitageletara eramane dituzte. Badakite, hoge minutu.

Felixek badu nahiko kezka, familia-koa izan arren sartzen utziko ote dioten

Burdin sarea eta kristala daude harremana artifiziala bihurtzen. Ahotsa igartzeko pasabide bat eta presoaren aldean grabagailu bat, esandako guztia jasotzeko. Seme presoak ikusteko uneko sentipenak ez

dira azaltzen errazak. *“Pentsa ezazu, hilabete ikusi gabe, bere egoera kontutan hartuta. Desiatzen zaude bere egoera nolakoa den jakiteko. Han itxaroten zaudenean, zer ikusiko ote dut, zer pasa ote zaio, nola ote dago, zer egin ote diote. Bere albistirik ez bait daukazu inondik.”*

Telegramak eta kartak oso gutxi iristen dira Arrasatera. Gauza hauek ez araupean baizik eta une bakoitzean arduradunek nahi dutenaren arabera funtzionatzen dute azkenaldian. Baldintza hauetan, ez idaztea erabaki du Jesus Mari Zabartek. Beraz bere egoeraren berriak hoge minutu horietara mugatzen dira. Hori da inporta dena, bere egoera. *“Denena bezala oso latza. Inorekin ez da ikusten, ez arruntekin ez politikoekin. 23 ordu zeldan pasatzen ditu (beren autoisolamendu neurrien barruan) eta dagokion ordubeteko patioaldira ere bakar bakarrik ateratzen dute. Beste bi preso politiko daude Ceutan, Eibarkoa non da-*

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5. Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE



goen ere ez daki eta Tolosakoari leihotik inoiz egiten omen dio eupadaren bat."

Bisita aprobetxatuz, jateko zer-bait, aldizkariak eta liburuak daramazkiote. Liburuak eta zenbait aldizkari (Argia eta Arrasate Press) ez dizkiote helarazten azken aldian, Madrilen aztertu behar dituztela eta. Bisitako kontuak kontu, azkar pasatzen dira minutuak, agur, hurrengora arte eta gogor egin.

Pozik. Semea inoiz baino hobeto eta umoretsuago topatu du Josepak. Azken bisitaldietan txarto aurkitu zuen, haginetao infezioaz eta Medikuek kasurik egiten ez ziotenez, ganglioekin oinazez eta haserre. Ea nola dagoen hurrengo hilean.

Berriz bueltan, bidaiaren astuna

"Urrunago badaramate ere, ni banoa eh?"

beste behin nabaritzen da eta denbora hobeak -ez horregatik onak- gogoratzen. Aurtengo uztailean Ceutara ekarri aurretik samurragoa zen bidaia: Haseran kotxez joaten ziren Almeriara, lau presoan familien artean kotxeak txandaturuz; gero, bederatziko preso zeudenez, furgoneta alokatuta; beranduago, hamaika presoekin, autobusean joaten ziren, garesti irteten bazitzairen ere. Orain, bakarka.

Semea semea da. "Urrunago badaramate ere, ni banoa eh? Orain Canarias-etara eramán dituztene-nak ni baino egoera txarragoan



daude. Bidaia azkarragoa, baina konbinaziorik ez dutenez zortzi egun han pasa behar, izugarrizko diru piloa, han egunak nola pasa...." Bi hile betez behin bakarrik joaten hasi beharra aipatu omen da horrelakoetan. "Nik esaten diet ezetz, ezir, litekeela presoak bi hilabetez bisitatu gabe eduki, dauden egoeran. Hilero derrigor, gura den bezala konponduta. Dauden bezala, elkar ikusi barik, inorekin barbarik egin barik. Hori Franco-ren denboran ez da pasatu, nik orduan ere eduki nuen semea preso eta. Gaur gaude une oso, oso txarrean, bai presoentzako eta bai familientzako."

Itsasontzia Ceutatik Algeciras-era oraingoan. Trenean, Josepak konfiantza gutxikotzat jotzen dituen jendearen artean, beren literetara sartu nahi zuten batzuekin liskar txiki bat gorabehera, berriz Arrasateraino. Datorren hilean berriz Zumarragatik pasako da Paris Algeciras trenara.

Pedro Mari Ruiz de Azua:
Presoak egoera politikoaren bahiatuak dira

Triste da, nire ustez, gaur egun preso politikoak edukitzea, borroka armatutik kanpo bideak badaudelako gure aspirazioak bideratzeko.

Borroka armatuak irtenbiderik ez duela kontuan hartuta, penagarria litzeteki gaur hogeitaz baldin badira presoak, bihar edo etzi hogeitaz edo hogeitaz izan litezkeela ikusteak. Egoera konpontzen ez bada hori litekeena da. Presoak gaur egun bi muturrek eragin duten egoera politikoaren bahiatuak dira, rehenak.

Egoera are mingarriagoa bihurtzen da sasoi honetan, Gabonetan. Epe motzera ez dakit zer gertatuko den, baina erdi epera egon behar da irtenbiderik. Horren esperantzarik ez dut galdu.

EAKO zinegotzia

Kopuruak

- Presoak:20
- Zenbat kartzelatan:15
- Epaitu gabe:10
- Epaituak:10
- Zigor urteak guztira:
.....1.200 inguru
- Bost urte baino gehiago daramatenak.....9
- Osasun egoera txarrean: 7
- Hospital-espetzean:.....1
- Gazteenaren adina:17 urte
- Zaharrenaren adina:44 urte
- Frantziar espeteratua: ..1
- Deportatuak:5

IBARRETA ETXEA

Oihaldegi eta jostundegia

Postas 3, Tfnoa: 23 20 60 GASTEIZ




SAMEGO
GARBIKETAK

Alfonso X. Jakintsua 5
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

Utarrilaren 2tik 5era

ARRASATEAN

azkenean



Antolatzailea:  Arrasateko Udala

Laguntzailea: Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Ez kon tzak

Iñaki Agirre eta Maite Arriaran irailaren 23an, larunbatez, ezkontu ziren Parrokian, lore eder artean. Zorionak!



Epelde



Epelde

Mateo Corbella eta Patricia Zubizarreta Urteberraino joan ziren ezkontzera, irailaren bederatzian. Ondoren, Kanarietara joan ziren eztei-bidaian. Urte askotarako!

Javier Garai eta Izaskun Muruak
S. Fermin biharamona aukeratu zuten ezkontzeko, Bedoñako elizan. Bejondeielai!



Epelde

EPELDE

argazki denda

Iturrioz 24, Tfnoa: 79 19 71 ARRASATE



Laso

Arantzazuko eleizan ezkondu ziren Nati Sanchez eta Jesus Uranga, irailaren hogeitahiruan. Mila zorion!



Epeide

Urriaren 21ean, Dorletako Amaren eleizan ezkondu ziren Eugenio Urzelai eta Lorea Arregi. Ondoren, Bali irletara joan ziren eztei-bidaian. Zorionak!

Jon Heriz eta Mila Kortabarria, Aramaioko Uribarri auzoan ezkonduak, urriaren 28an. Zorionik beroenak etorkizunerakol



Epeide

Jose Manuel Matas eta Raquel Mijangos, urriaren 12an ezkondu, eta Cubara joan ziren eztei-bidaian. Aurrerantzean, zorionik beroenak!



Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak. Bisuteria.

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

Javi Manteca eta Arantza Urkia guapo-guapo jantzi ziren Arantzazura joateko, han ezkondu behar zirela eta. Gertaera urriaren hamarrean izan zen, asteartez. Mila zorioni!



Epelbe



Epelbe

Manuel Tena eta M^a Carmen de la Concepción, urriaren 7an elkartu zituzten beren bizitzak. Bejondelela!

Nikolas Arazuri eta Ana Isabel Segundo Monterronen ezkondu ziren, zibilez, azaroaren hamazortzian. Urte askotarako!



Laso



Laso

Diego Varquero eta Gloria Ferreirak Mondragoeko Jasokundearen elizan azaroaren hogeitazortzian. Zorionak!

LASO-ARREGI ARGAZKI

ERREBELATUAK ETA KOPIAK ORDUBETEAN

Eguberri hauetan eskaintza handiak argazki makina eta bideokamaratan

%20ko beherapena edo beste argazki-erroilu bat zure argazki-erroilu errebelatzeagatik



Epelde

Arexabaletan ezkondu zitzaizkigun **Rosa Mari Domaica eta Javier Iñiguez**, azaroaren 4ean. Zorionaki!



Epelde

Azaroaren 18an, Arantzazuko eleizan ezkondu ziren **M. Carmen Ugalde eta Julio Ajuria**. Eztei-bidaian Cancunera hurbildu ziren, Mexikora. Zorion bero-beroaki!



Imagen argazki

Marisol Usatorre eta Carlos Martínez Dorletan ezkondu ziren abenduaren bian. Bazkaria Marisan egin zuten eta Faraoien Egiptora joan ziren eztei-bidaian. Zorionaki!




Imagen argazki

Felipe Zabala eta Maria Angeles Sanchez Musakolako San Isidron ezkondu ziren. Taberna Berrin bazkaldu eta eztei-bidaia inguruak gozatzen eman zuten. Zorionaki!

GABONETAKO PROMOZIO BEREZIA

Argazki-roilu bat errebelatzeagatik beste argazki-roilu bat oparituko dizugu

Zerkaosteta 5, Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE



“Hobe gutxi eta gauza onak idaztea”

Iñaki Mendiguren, literatur munduan hasi berri

Iñaki Mendiguren dugu aurtengo “Kafe Iruña” nobela lehiaketaren irabazlea. Filosofia eta letretan lizentziatua, hainbat urtez euskal literatura eta euskara irakaslea izan da, irakasle garaia amaitua duela aitortzen badu ere. AED elkartearen sortzailetarikoa, Arrasate Press-en ere, hasiera hasieratik aritu izan da lanean. Gaur egun itzultzaile lanetan dihardu, liburu ugari kaleratu dituelarik. Berak aitortzen duenez, oso gustora ari da itzulpengintzan, askatasun handia ematen duen lana da eta.

— *Kafe Iruña saria “Haltzak badu bihotzik” nobelarekin irabazi duzu, hau al da zure lehen literatura lana?*

— Bai, garai batean Egunonen, Egin-eko gehigarrian ateratzen ziren *Parabola* gezaminak deitzen zirenak, istorio labur-labur batzuk idatzi nituen, baina hau izan da idatzi dudan lehen ganorazko lana.

— *Zerk bultzatu zaitu literatur munduan sartze-ra?*

— Beno, orain dela lau urte oportetan eta astia nuen eskenak idazten hasi nintzen. Poliki-poliki eskena hoiak lotzen joan nintzen mosaiko antzekoa eginez eta azkenean gorpuztu eta lan hori atera da.

— *Zer dela eta bidali duzu literatura sariketa batera?*

— Idazle profesionala, ospetsua edota horretan aritua izan ezik, ez duzu zeure buruarengan konfidantza edota ziurtasunik. Ez dakizu egiten duzuna ona edo txarra den. Beste norbaiten eritzia garrantzi handikoa da. Lagunei eman diezaiekezu, baina beren eritzia zenbateraino dagoen kondizionatuta, zenbateraino den inpartziala ezin jakin dezakezu. Niretzat lehiaketan alderdi positiboa hori da, idazten duzu, bidali eta lehen eritzia ematen dizute. Lehenengoa baino

ez, horrek ez bait du esan nahi gero kritikaren edota irakurlegoaren aldetik harre-ra ona izango duzunik.

— *Zer kontatu nahi izan duzu zure nobelarekin?*

— Nobelak, hiru urtetan zehar ematen diren irakasle eta ikasle baten arteko maitasun eta amodio harremanak kontatzen ditu. Irakasle batek UBIn ikasle bat ezagutu eta maitemindu egiten dira. Harremanak hiru urte irauten du. Ikaslea unibertsitateko bigarren mailan, soldaduzkara joan eta han amaitzen da historia, gaztearen bizitza han amaitzen delako, gaur egun, zoritxarrez gazte askorena amaitzen den bezala. Harremanak hiru urtetan gorabehera asko ezagu-

“Amodio kontutan, bi mutil, bi neska edo neska mutilen artean, zenbait gauza berdinak dira”

tzen ditu. Amorantea hil ondoren, zaharrenak nolabaiteko monumentu eskaini nahi eta, monologo gisa hiru urtetan zehar izan duten elkar bizitza gogoratzen du.

— *Lehenbizi eskenak idatzi omen zenituen, baina nobela gorpuzteko ez al zenuen nolabaiteko argumenturik aurrepentsatuta?*

— Argumentua ez, gaia nuen pentsatuta. Gaiak bi



Iñaki Mendiguren

alderdi ditu. Batetik maitasuna eta amodioa, besterik gabe. Amodioan badaude zenbait gauza berdinak direnak, bi mutilen artean, bi nesken artean, edota neska-mutilen artean. Zeloak edota maitasuna, botere burruka, botere erlazio bezala. Maitasunean monotoniak edota eguneroko bizitzak sortzen dituzten arazoak. Horrelako gauza asko daude maitasunaren inguruan orokorrak direnak. Maitasuna asko interesatzen zait gai bezala.

Arlo horren inguruan eskenak idazten hasi nintzen.

zioa da, ez da autobiografikoa. Edonola ere, dudarik gabe, nobelako pertsonaietan norberak barruan dauzkan gauza asko proiektatzen ditu. Sarritan ez zuzenean adierazten direlako, kontrako adierazten dutelako baizik. Nobelan agertzen diren gauza askorekin ni identifikatzen naiz, gizarte emeago, maitakorrako, gozoagoaren mezuarekin. Antimilitarismo eta antimatxismoaren aldeko apostua bere zentzurik aberatsenean azken finean.

— *Zure lehen nobela honek sariketa irabazi eta aurrerantzean idatziko al duzu besterik? Animatu al zara?*

— Animatu, gauza hauek beti animatzen dute. Hala ere, niri idaztea asko kostatzen zait. Beste batzuk esan ohi dute erraz idazten dutena, baina ez da nire kasua. Idazteko bakea eta lasaitasuna behar duzu eta nik eguneroko bizitzan ez dut aukera gehiegirik. Bizitzan zehar, beste liburu bat idaztea gustatuko litzaidake. Ez dut asko idaztea pentsatzen. Asko idatziz gero inozokeria ugari esateko arriskua egoten da, oso zaila da asko idaztea errepikatu gabe. Hobe gutxi eta gauza onak idaztea.

— *Sarritan esan ohi da nobeletako pertsonaiek idazlearen zerbaitek badutela, zure pertsonaiek ere zurea den zerbaitek isladatzen al dute?*

— Istorioa, nobela, fik-



Saskibaloi taldeak denboraldi makala darama

Epelde

Urte berri on

1990a, Arrasateko kirolarien zain

Urte amaiera heldu den arren, kirolari gehienentzat oraindik ere zain dago 89-90 denboraldiaren bigarren partea. Atsedendaldi garaian, aproposa iruditu zaigu talde bakoi-tzak bizi duen egoera aztertzea.

Mondra

Ez dabil ondo gure taldea. Alda-keta ugari egin ziren denboraldia hasi aurretik, fitxaketa asko, makina bat kanpotar ekarri..., baina oraindik ere ez zaie joku onik eskaini zale-tuei. Kontuak kontu, Mondra sailka-peneko azken postuetan.

Pedrusko

Aurreko denboraldi bikainaren ondoren, itxaropen ugari aurtengo-rako; baina, bai zera. Ez dabilta fin San Andresekoak: ihardunaldi ba-tean 1-5 irabazi, hurrengoan 2-5 gal-du! Irregularrak halakoak!

Jubenilak

Txalo beroa ohorezko mailan diharduen taldearentzat. Ligan sailkapeneko lehen postuetan daude, eta joku polita eginez gainera. Eutsi goiari!

Neskak

Entrenamentu gogorak bai, bai-na gero emaitza eskaxak eskuratzen ditu Okendo Kirolak futbol taldeak. Urte berriarekin, bide berria egiteko aukera.

Saskia

Aurre-denboraldian ederto ibili baziren ere, liga hasi zenetik izugarriko beherakada ezagutu du Arrasate Kirolak Saskibaloi taldeak. Partidu bakarra irabazi dute hamai-ka ihardunalditan. Aurrerantzean, gogor aritu behar mailari eusteko, jaisteko arriskuan bait daude.

Eskubaloia

Talderen baten lana azpimarratu beharrez gero, hori Arrasate Kirolak Eskubaloi ekipoarena litzateke. Orain bi hilabete Federazio kopan txapeldun, eta aurtengo ligan, momentuz behintzat, benetan bikain. Gauzak egokiro egiten ari dira, gutxika-gutxika igoeraren lorpena eskuratzeko. Zorionak!

Rugbya

Arazoak izan dituzte Pello Hiriarten mutikoteek maila berriari neurria hartzeko. Dena den, badirudi azken ihardunaldietan erraz gainditu dituztela parean tokatu zaizkien aurkakoak. Ea ba, segi horrela!

Atletismoa

Aspalditik aritu lanean, eta badirudi orain hasi direla lan horren emaitzak jasotzen. Gay eta Maiz-bide puntan, eta makina bat neska-mutiko haien atzetik. Ametsa, etorkizuneko Iturripe!

Pelota

Amaitu berria dute X. Santamas Txapelketa, non ehun pelotari baino gehiok parte hartu duten. Gogoak bai, maila ona ere bai, baina instalazioak benetan makalak. Noizko Ferrixalekuko frontoia?

Igeria

Guztira hirurogeiren bat gazte ari dira Arrasate Igeri Taldean. Entrenamentu gogorak kiroldegian, eta ondo egindako lanaren ondorioz, Euskal Herri eta Espainia mailako hainbat txapeldun Arrasaten.

Xakea

San Andres Xake Taldeak, urte-roko arazoak gainditu eta gero (gastuak, jokalar berriak sartu beharra, etab.), gogor dihardu borrokan preferente mailari eusteko. Maisuren bat ere ezagutuko al dugu noizbait!

E D E L
TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca 6,
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



podiuma

Esteban Uribesalgo,
Kirolari laguntzeko prest
 Arrasate Kirolak 1986an jarri zuten martxan. Hasieran eskubaloï taldeari laguntzen hasi baziren ere, ordutik hona hainbat ekiporekin jarri dira harremanetan. *"Zergatia argi dago, dendaren izena kirolaren munduan ezagutzera ematea"*.

Arrasaten besteak beste eskubaloia, saskibaloia, pilota, txirrindularitza, atletismoa, rugbya, futbola, eta hainbat ikastetxeri eskaini dizkiote laguntzak. Besaiderekin ere harremanetan. Aretxabaletako UDA K.E., Eskoriatza K.E., Oñati eta Mutrikuko eskubaloï taldeek osatzen dute benetan luzea den zerrenda. *"Argi utzi behar da kirol horiek hor zeudela gu heldu aurretik, jende ugari aspalditik lanean. Gure meritua zera litzateke, ahal dugun neurrian beharrezko dituzten laguntzak ematea"*.

Kirolaren esponsorizazioa, ordea, mundu arriskutsua da. Kirolariak maila hobetzen duten heinean, gastuak ere disparatu egiten dira: bidaiak, materiala... *"Guk gaur egun aurrekontua gainditua daukagu. Baina etorkizunean ere diru-inbertsioak egiteko prest gaude, batez ere gaur egungo lana finkatzeko, hobetzeko. Kasu batzuetan profesionalismorantz hurbiltzen badira, harreman berria aztertu beharko dugu, beti argi edukiz ez diogula talde bati uko egingo gastua bakar batzuekin egiteko"*.

Harrobiarekin beti aurrera. Gainera, badirudi harrobi hori inoiz baino sendoago dagoela. *"Jendeak*



Esteban Uribesalgo

geroz eta kirol gehiago egiten du, talde ezberdinek ere inoiz baino kirolari gehiago dituztela esaten dute. Kirola sasoi onean dago inguru hauetan, eta noski, ezin ukatu guri hori ederto datorkigula".

Etorkizunean ere, badirudi Arrasaten diru-inbertsio handiak egingo direla instalazioak hobetzeko: kiroldegia hobekuntza, biharko Iturripe, Ferixalekuko frontoia... *"Kirola egiteko gaur egun dagoen eskaria asetzeko, beharrezkoak dira instalazio horiek, eta pozgarria da denentzat instituzioak baliabideak jartzeko prest daudela ikustea"*.

Hainbeste ordu, hainbeste sos eman dituzte kirolaren alde, bueltan ere jasotzen dutela jasotzekoa. *"Jende asko etortzen da dendara. Baina horrek baino gehiago zerak ematen du poza, kirolaria hona hurbiltzen denean bere eskerrona ematera"*.

Gaur ereiten dena, hori jasotzen da bihar. Segi kirolari laguntzen, Esteban, eta etorkizunean ere ez zaizu faltako kirolarien esker ona.

■ Gorosabel selekziara

Sebas Gorosabel Arrasate Kirolak Rugby taldeko jokalaria Espainiako selekziara deitu dute. Zorionak, Sebas!

■ Xake txapelketa

Cruz Lopez maixua izan zen garaile "Arrasateko I nazioarteko Xake Txapelketa". Bere atzetik, J.I. Alonso eta Ricardo Bastida. Arrasatearrei dagokienez, aipatu behar Jose Javier Vallina izan genuela onena, hamaikagarren postuan. Honetaz gain, bertan egon ziren Miguel Angel Mateos, Luis Valgañon, Carlos Mayo, Daniel Mayo, Loli Errasati eta Manolo Sebastian arrasatearrak ere.


Herri kirolak

Santo Tomas egunerako, herri kirol ekitaldi bikaina antolatu zuten Zaldibarren. Olasagasti, Zabalegi, Arrospide eta Mugerza aizkolariak batetik, eta bestetik Goenatxo, Gibitegi, Puello eta Perurena harrijasotzaileak.



Denborapasen soluzioak

Ikusi-makusi
 19.



OKENDO
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera
 udazken-neguko moda !

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Hirugarren iraultza

Hiztegiak iraultza hitza "zerbaiten egoeran, bereziki gizarte mailan izaten den aldakuntza handia" bezala definitzen du. Behar bada gertatu ziren garaian suposatu zuten berrikuntza edo nobedadea direla medio ezagunenak ditugun iraultzak frantses edo sobietar iraultzak ditugu, edota iraultza industrialak.

Edonola ere giza ihardueraren edozein esparrutan egon da inoiz iraultzaren bat eta horrela adituek nekazaritzan ere eman direla adieraziko digute. Munduko nekazaritza mende honetako hirugarren iraultzaren aurrean omen dago, EEBBetako Zientzi akademiak argitaratu berri duen txosten batek dioenez.

Lehenengoa, mende hasieran hasitako nekazaritzaren mekanizazioa izan zen. Bigarrena 1960.ean eman zen, ongari kimikoen eta produkzio



handiko barietateen erabilpenari esker. Hirugarrena, nekazaritza alternatibo izenekoa izango omen da.

"Nekazaritza Alternatiboa" da 450 orrialdeko txostenaren izenburua eta unibertsitateko 17 adituk

idatzi dute. Txostenaren helbururik nagusia, naturan gertatzen diren erlazio biologikoak uzten produkzioa hobetzeko erabiltzea da. Puntu hauek azpimarra daitezke:

- Eritasunei eta lehorteari aurre egiteko eta elikagaiak efikazia handiagoz erabiltzeko gaitasuna izango duten barietateak genetikoki lortzea.
- Uzta bakarra erein beharrean, uzta bat baino gehiago ereitea. Uztan errotazioa beharrezkoa izatea.
- Eritasunen prebentzioa bultzatzea eta antibiotikoak gehiegi ez erabiltzea.

• Izurrien kontrolerako metodo integratuak erabiltzea. Metodo hauek naturan gertatzen diren harrapakari/harrapakin erlazioak erabiltzen dituzte. Pestizidak gutxiago erabiltzea da helburua.

Elhuyar-etik hartuta

NERIAN

Otalora 14, Behetxea. Tfnoa: 79 70 66 ARETXABALETA

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

ALTZARIAK



ALTZARIAK

Poligono Matxiategi.

Tfnoa: 76 16 53

Bergara

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Bisuteria.

Olarate kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

ARRASATE PRESS

79 71 64

Citroen XM, 1990 urteko autoa Europan

Oraintsu urtebete aipatzen genuen hemen -dagoeneko Arrasate Press hau urtebeteko ume potoloa!- nola Fiat Tipoa 89 urteko autoa aukeratua izan zen Europan. Oraingoan, berriz, Citroen XMak jaso du izendapen berdina datorren urterako. Eta ohi duen bezala, auto berri honekin ere proposamen ausartak aurkeztu ditu autogile frantsesak.

Teknikaren garapenak eta hedapenak autoetxeen arteko zenbait berezitasun ezabatu badute ere, Citroen etxeak gogor eusten dio betidanik bere-berea izan duen ezaugarriari, hots, abangoardia-zaletasunari. Gogoratu besterik ez dago "bizaldiko" famatua munduko II. gerraterako sortu zuela Citroen-ek, auto utilitarioen ondorengo garapenaren oinarriak finkatuz. Era berean, "tibuoi" mitikoak urte askoko aurrerapenaz aurkeztu zituen berlina modernoen



ezaugarri oinarrizkoenak.

Dena den, abangoardia eta komertzialtasuna ez doaz beti uztarturik eta Citroen-ak ezagutu ditu une larriak ere. Horietan azkena 80. hamarkadaren hasieran iritsi zitzaion, *tibuoi*a desagertu eta *bizaldikoa* zaharkitu zenean, eta GS-ak arrakasta komertzial mugatua izan zuenean. Urte batzuz sekulako beharakada jasan ondoren, BX-arekin hasi zen enpresa suspertzen eta AX-ak izan duen harrera apartari esker itzuli da berriro aitzindarien artera.

Oraingo XM honek leharke osasunaldiaren ziurtapena.

XM-an Citroenek hain maitea duen suspentsio hidraulikoa bereziki landu da, adimentsua izatera iritsi arte: behin altuera eta gogortasuna aukeratuz gero, autoak berak mantenduko ditu, edonolakoak direla bidaiaren baldintzak. Diesel motorean beste berrikuntza nabari bat: zilindro bakoitzeko hiru balbula. Faroetan ere berauek oso meharrak izatea lortu da potentziarik galdugabe, muturra zorrotzago eta aerodinamikoago izan dadin. Etabar, etabar.

Gainontzean, autoa handia da -4,7 metro- eta bi edo hiru litroko motoreak ekar ditzake. Laster egongo da salgai lau bat milioen truke.

Citroen-en ohizko ausardiak oraingoan sari bikaina jaso du. Zorionak!

Mikel Intxausti



**Itsasoko jaki gozo guztiak
zeure mahalan, prezioak ere
izoztuta**

**Arrain, itsaski, barazki eta jaki
aurreprestatu izoztuak**

**ZERBITZU BERRIA, ZEURE
MAHAIRAKO**

Okendo kalea (Azoka ondoan), ARRASATE

BEHERAPENAK

MANGO

lotsagabe jazteko

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

Liburu-azoka

Arrasaten bada azoka bat, astero-astero antolatu ohi dena, gu guztion probetxurako. Santamasetako azokak, ingurune hauetan, entzute eta ospe handia du gainera: Baserritarren Azoka. Baserritarren Azoka hau, ikusgarrizko azaburuz, letxugaz, lekaz zein patataz horniturik agertzen da beti, aldian-aldiko fruituak nola barazkiak oso era erakar-garrian salgai jartzen direlarik.

Dena den, Arrasaten bada beste azoka bat ere, ez barazkiz osatua, jakina, baizik eta askoz ere leunagoa den beste jenero batez, eta lehen aipatu dugun azokak beste garrantzi eduki lezakeena: Liburu Azokaz hitzegiten ari gara, ez gehiago eta gutxiago (Arrasaten, Santamasetan juxtu, antolatzen dena urtero; aurten, "Frantziskotarren" lokaletan antolatu dena).

Liburu Azoka hau, AEDk antolatzen du, eta noski, hasieran aipatu dugun azokaren aldean, baditu bere berezitasun nabarmenak. Lehenik eta behin, usaina, oso usain fin eta delikatuak, paper samurretan barrena ageri dena, letrarik-letra estanpaturik. Azoka honetan, eta arrazoi osoz, ez dira inola ere azaburuak erakusten, nahiz eta batzuetan, azaburu ilustragarriak azaldu; ez dira, ezta ere, ilarrak salgai jartzen, edo are gutxiago, onddoak erosten, baizik liburuak, eta zehazkiago esanda, euskal liburuak, gure baratz eta ortu kulturaletan sortuak. Eta gutxiago ez izateko, diskak, euskal diskak, liburu mordoak girotzeko musika.

Liburu-Azoka hau dela eta, hona "Klarion" taldeak egiten dizun proposamena:

Baserritarren Azokara hurbiltzen


zaren bezala, Liburu Azokara ere hurbil zaitezela; dasta ezazu ahalik eta liburu ezberdin gehien; eta bide batez goza, sorterazten dizkizuten sentimendu edo ideiekin. Dena den, zu lasai, agian deus ez bait dizute sorteraziko, baina orduan, egizu beste froga bat, ausar zaitez liburu bat zabaltzera, intxaurrak zabaltzen diren modura. Eta baldin, bapatean, lagun maitagarri batez gogoratzen bazara, ez dudatu segundu bat ere: eros ezazu liburua.

Ziur egon zaitez, eskuartean daukazun jenderoa, ez dela kipula, aza berdea edo txorizo lukainka. Ez! Baizik eta liburua, zure lagunari, zergatik ez, irakurgarria gerta lekiokeena, zuri, Baserritarren Azokatik erosten duzun beste jeneroa ere, jateko baliagarria gertatzen zaizun bezala.

Hala izan dadila!

Klarion taldea

AE Elkoro



Zure antena txarri badabil, esalguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, Indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnoak: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

KAJOI TABERNA

*Jai zoriontsuak
eta urte berri ona
opa dizkizue guztioi*

Erdiko kale 22, Tfnoa: 79 32 27 ARRASATE

OINETAKOEN
AUTO
ZERBITZUA

ZAPATODOS


Olarte 9,
Tfnoa: 79 41 29
ARRASATE

TXIBISTO

Abenduak 29, ostirala, gaueko 11,30etan **TAHURES ZURDOS** eta **DELIRIUM TREMENS**

Abenduak 30, larunbata, **LEHEN LAMBADA-LEHIAKETA** (Bikoteka)
Bikote irabazleari 25.000 pta.ko saria.

Abenduak 31, igandea, **GABONZAHAR** eguneko **KOTILOIA**.
Ongi etorria 1990 urteari txokolate eta txurroekin



Azkenean zure zerbitzura !!

Bisita gaitzazu

Bilatu izoztuen benetako izotza

Jai zoriontsuak guztioiii!

Okendo kalea 3, ARRASATE

Gabon hauetako musika martxan dator

*Disko, kassette, edo Compact disk bat erosi
eta parte har ezazu
kotxe honen zozketan*

*Zozketa notari aurrean 1990eko
urtarrilaren 20an*




LANCIA
Munduko Txapelduna 7 bider

LANCIA DELTA "WORLD CHAMPION 1300"

1990

Eguberri-on eta Urteberri-on
Feliz Navidad y próspero Año Nuevo
Merry Christmas and a happy New Year
Bon Nadal i Felic Any Nou
Joyeux Noel et bonne Année
Frohe Weihnachten and ein gutes Neues Jahr
Feliz Nadal e próspero Ano Novo
Bouon Natale e Felice Anno Nuovo



Otalora kalea, Tfnoa 79 29 09

Ekologia IV

Sintetizagarriak diren substantzia kimikoak milioia baino gehiago dira gaur egun.

Berrogeitamar mila baino gehiago dira erabiltzen dituzten industriak (siderometalurgikoak, paperoiak, zurgindegiak, kimikoak...). Egungo Elkartean planteaturik dauden problemetarik kutsadura industriala -barnekoa nahiz kanpoko- da larrienetariko bat. Aldaketa ekologikoa hain handia denez, berehala erremediorik ez bada jartzen, atzerazinezko bihur daiteke.

Edozein substantziaren produktzioa eta ingurugirora egiten den isurketa edozein kontrol eta ikuska-penetik kanpo daude.

Egia da legislazioa hor dagoela baina berau errepresiboa izanik, ez da batere eraginkorra.

Lantegiak airea, ura eta lurra erabiltzen dituzte behin eta berriro



hondakindegia bezala, gure ibaiak zabortegi industrial bilakatuz. Nahiz eta "Lege-hauste ekologikoa" legearen izpirituan kontutan izan, gutxitan izaten da zigortua ibaietan egindako isurketa.

Askotan "Lege-hauste" hori ez da ekologikoa soilik, osasunaren aurkakoa izaten da gainera.

Gehienetan zigorgabe geratzen dira, edo emandakoa sinbolikoa besterik ez da izaten.

Bestalde, kutsadura honen ondorioak ez dira berehalakoak,

urteak igaro eta agertzen dira. "Negutegi efektua", Ozono geruzaren aldaketa eta hainbat anomalia ingurugiroan agertzen ari direnak ez dira bapatean agertu eta gainera ez dago gure eskuetan oraingoz soluzioa ematea.

Ingurugiroaren degradazioarekin loturik dauden osasun-arazoekin beste hainbeste gertatzen da. Urteak igarotakoan agertzen zaizkigu, hau da soluzio egokia emateko garaia igaro denean.

Zentzugabekoa izango litzateke teknologiaren aurrerapenari aurka egitea, baina aurrerapen industrialak oreka ekologikoarekin bateragarria izan behar du, eta aberastasun, ondasun eta osasun iturri gainera. Horrela ez bada ezin genezake aurrerakuntzaz hitz egin.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

lurrundegia, opariak
jostailuak

Zarraoa

apaindegia

Mondragonesa Grafitagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63



EGIDO Ordezko Plezak

Automobillerako ordezko plezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11

URKIOLA
argazkidenda

Tfnoa: 79 39 20 ARETXABALETA



**Aloña
Piel**

San Lorenzo 40,
Tfnoa: 78 18 60
OÑATI

BATZOKIA
jatetxea
Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

Murugainen

Hementxe bertan, Arrasaten, makinatxo bat leku dugu ikusteko eta gorderik gauden inguruak, agerian badaude ere, ezagutzeko. Murugainera joan eta inguruko mendixkarik politenetarikoa dela ikusiko duzue.

Domekero askotxok egiten dute bere txangotxo: gehienek oinez eta duela gutxitik, zenbaitek behintzat, mendiko bizikletan. Bai horixe! Lehenengo Olandixoko erripak igo eta mendi-pistatik gora "Miravalles" baserri ondotik Untzilla aldera hartu. Baserrietara helduz gero, Murugainera doan pista hartu eta puntaraino. Aldatsak igo eta bemaiz bizikleta gainean egiteko gune aproposa da. Baina politena geroxeago dator: Muru gainean zaudela, han dastatzen diren haize boladak. Freskotasuna dario gailurrari! Jarri eta Arabaldean: Anboto, Orixol, Ipiste, Tellamendi, Lurgorri, "Lauaxeta"



ingurune zoragarria. Eta honuntz begiratu eta aurrez aurre Udalaiz mendia gure inguruneko tontorretan tontorrik "finena", eta bestekaldean: Euskal Herriko hainbat mendi: Izarraitz, Ermio, Aralar aldea, Aizkorriko mendizerra, Aloflamendi, Urbia, Aratz.

Ikusten duzuen legez, sekulako mendi-sorta.

Denbora: oinez 1h 30' asko jota; bizikletan, joan-etorria 1h 30' edo.

Beraz, erraza, aguro egitekoa eta gainera Euskal Herriko hainbat txoko ikusteko aukera ematen diguna. Ezagut ezazu! *K. U.*



Arrasate
kirolak

Gabon onak
eta urte berri on !

JAI ZORIONTSUAKI



Sport
SASIÑIN

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABAETA

Lore *lurrindegia*

Olarte kalea 10, Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

MARI MAR
ARTILEAK

Puntozko jantziak
eskuz eta makinaz
egiten dira

Kalealdea 13, B.Tfnoa: 79 65 93
ARRASATE


Zure erosketak AKOBEN egiten badituzu KOTXE bat irabaz dezakezu



ZOZKETA
1990eko
urtarrilaren
19an

Volkswagem
Polo Coupé GT: 5cv.
autoa

THOMSON
VTS-200 Bideoa
40 aparatu



Notario aurreko ZOZKETA

Akobe



Jose Aranzabal


Elektrogailuak. TB. Bideo

Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

KOLTZA - *Jose Aranzabal*

Sukalderako altzariak. Oparigaiak

Bañez doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92



ARRASATEKO UDALA

*JAI ZORIONTSUAK ETA
URTEBERRI ON OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO UDALBATZAK
ARRASATEAR GUZTIOI*

Arrasate Press zuekin
urte zahar eta berrian,
poztuko ginateke ikustearekin
zorion betea herrian .

**ARRASATE
PRESS**

ETXEBIZITZAK

- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pisuan gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53. Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisu salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisu salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisu salgai J.L. Inarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Uribe auzoan aparkalekua alokatzen da. Dei 10etatik 11etara 79 69 59 tfnora.

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Ingelesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingelesezko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsua neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurri euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko niltzuke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar da. 79 71 34. Ane.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Dei egin 79 07 73 Tfnoa.
- Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Lan baldintza onak. Interesatuak dei dezala telefono honetara: 79 88 14, arratsaldeko 8etatik aurrera.

SALEROSKETAK

- Fagor markako ikuztailua salgai. Ondo dago eta merke sakduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnora.
- Soinua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prenler bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Amplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-joku bat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnora. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Micro Genle V-60 organo elektronikoa salgai. 8 ahots polifoniko, erritmo kontrola, efektuak mota melodikoak eta musika laguntzaz etab.. Interesatuak dei 79 33 35 tfnora. 8etatik aurrera
- Raider 2WD auto irrati-kontrolatua salgai, Challenger 250 irratiak. Baita bateriak eta beste, berri berria. Tfnoa: 79 52 31. Iban 8etatik aurrera.
- 5 urtetik 9 urtetako umeentzat bizikleta salgai BH markakoa, ia berria eta merkea. Tfnoa: 79 04 10. 6etatik aurrera.
- 4/4 neurritako bibolina salgai. Interesatuak deitu 76 52 15 tfnora.
- Narruzko jaka salgai. Ona eta merkea. 55 tailakoa ia berria 79 89 51 Tfnoa.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Felipe Mulas Santiago 53 urte.

Abenduaren 19an

Rosario de los Angeles Uranga Abarrategi

90 urte. 20an

Luis Antonio Sanguino Botejara

24 urte. 23an

Ramon Vitoria Vitoria

66 urte. 25ean

German Tejero Lopez

84 urte. 27an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasalekua 3 bis, etxebat.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Pedro Sologaitoa "Laso" (I), Derrigorrien ezkerri bihurtuteko futbolarixe



Eskola kontuek

Beratzu urte arte mojetan ibili nitzuan eta gero Biterixenien. Nik ule asko naukan eta eguerdi baten maixuek esan jutzan. "Si a la tarde no vienes con pantalón largo no tienes entrada"

Amaitu esan nutzan maixuorrek esandakue eta hak, "Zeaz eifigo duztat ba frakok, neure amantalkin ala! "Akabo nire eskola kontuok. Hamairu urteaz urten eta, "A la Universidad de la vida".

Lehenengo ekipue "El huracan"

Gregorio Azkuagan anaia Ameriketarik etorri zaniene hemengo kaleko mutikuekin "El Huracan" ekipue formau jua.

Komerrak ezkerretik botateko ifior etxauan, danok be eskasak eta neu jarri ninduan ikesten. Entrenamentuetan, eskumeko hankan alpagatie eta ezkerrekuen botie zala, eif biher izeten naixuan fubolien. Han ibiltten nitzuan kojuen moruen. Derrior ikesi biher ezkerraz eta eskumiaz golpeik pez gero.

Hamaxei urtekin Mondrauekin

Gerra aurretik Eusko Gaztedin

delantero zentro ibili nitzuan. Gero hamasei urtekin, 36xen Mondrauekin debutau naixuan, Beasaifien "Eltzoi" eif jakon homenajien. Partidue hasiaz batera, Ramon Barandai penaltixe pitau eta espulsau eif jua arbitruiek.

Guk orduen, baloiei ikutuik be ez eittie pentsau gaixuan. Bota jua penaltixoi eta porterue mobiru bez. Atara jua baloie eta iflok be ikutu barik barriro gol. Halan, hamabi eta zero irebazi juzkuen.

Bueltan etorri gitzenien, Ayala presidentiek ixek akabau ginduan.

Elgoibarren kontra kanpeoi

Elgoibarren kontra titulue jokatetan gauen baten, kanpeoi urten gaixuan. Bueltan trenien gatzela, Maltzagako estazifuen geratu gitzuan eta bateon batek, galleta lata bi ohostu jittuan. Baiñe, galleta dunok konturetu eta hasarre jarri zittuan eta esan gutzan, C. D. Mondragoni pasetako fakturie pagauko gauela eta. Hemen pagau jua fakturioi eta bokailoik bari egon gitzuan aste bixen ero.

Orduen gosie jauan eta galletak, ogixe eta halakuek estimau izeten zittuan. Babie besteik ez gaixuan jaten eta. Babioi gaifera fratelkada bat jan, hiru jan igual-igual. Olatxoneko bazterrera allegau orduko hiru-lau uzker bota eta juenda jauan dana eta.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Matinek, diru apur bat aurreratu ebala ta, kostia kosta radixua erostia erabagi eban. Dendara joan eta esan zotsan dendarixari:

— Ona emon gero, e...!

— Bai gizona, horren dudarik ez euki —kontestau zotsan dendarixak.

Philips bat emon zotsan, hoberik eztatola ta, eta gure Martin etxera abixau zan pozik asko.

Andria eta bixak, zihero umeturik, hasi zien emisora bat ipini eta bestia ipini, baina leneguak, bigarrenak, hirugarrenak eta denak frantzesez jote eban. Andriak, ernegauta, esan zotsan Martini:

— Ederra ein dotsue! Radixo frantsesa saldu.

— Bai ete ba?

— Dudia ala? Bai, gizona, bai, radixo hau frantsesa da. Joan zaitte dendara eta trukian espafiola emuteko esaixezu.

Badoia gure Martin berriro dendara eta hola esaten dotsa dendarixai:

— Zu radixo hau frantsesa da.

— Frantsesa? Tira, tira, zela izango da ba frantsesa? —dendarixak txokaute.

— Ba... den moduan. Emisora bat jarri, bestia jarri, beti frantzesez joten dau.

— Aaaa!... bai ba... —diño radixo-saltzailliak ahua zabalduaz korian ipifiko zifuan da...

— Kortan? Bai zera! Sukaldian ipini gifuan, sukaldian.

Juan Martin Elexpuru

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behe.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Argazki hau XIX. mendearan amaieran hartu zen. Bertan, orduko Euskal Herriko

dultzainaririk ezagunenetakoa, Altube anaiak, Benigno ezkerrean eta Sebero eskuinean, Cristobal Bedia tanbolin jole gaztetxoarekin. Velez de Mendizabalek bere liburuan dioenez, udaldi baten amaieran, artean bederatzi urte baino ez zituen Cristobalek orduko mila pezeta entregatu zituen etxean, halakoxea zen zuten arrakasta.

Kristobal izango zen, hain zuzen ere, Mondragoen geldituko zen bakarra. Beste biak joan egin ziren. Benigno Elorriora lehenengo eta Bartzelonara ondoren. Sebero Gernikara, hango Musika Banda zuzentzera. 1903an hango Orfeoia sortu zuen. Gernikako alkate ere izan zen. Gerora bere lan linguistikoeak ospetsu egin zuten Sebero Altubek, bada, gaztetandik ekin zion musikari Mondragoen. Oraingo dultzainariek badute aintzindari onik!

**UDALA
ATEAK**

Erakusketa,
salmenta eta instalazioa

**ATEAK, ERRADAPIAK ,
OHOLTZAK**

Kale Aldea 13, Tfnoa: 77 04 90
ARRASATE

ZAIN DITZAGUN EZAGUTUZ ...

GURE MENDIETAKO BIDE EZEZLAGUNAK



MIGUEL ANGULO

ELKAR

330 or.
3.500 Pta.
27 x 19 zm.

MIGUEL ANGULOren 3. lan mardula
ELKAR Argitaletxeko **MENDIA** sailean
Argazki ugari eta txundigarriak!

Gau motelak bakardadean. Gizonak eta emakumeak, haurrak. Eta inoiz ahaztuko ez dudan nere trapuzko lehen pilota.

Gauetan, izarrei so makinatxo bat galdera infinitoari; baina infinitoak ez du deus erantzuten.

Gauak eta egunak. Du. Oraindik ere nere buruari galdetzen diot nolatan ez dizudan belarrira karraxi egin, maite zaitudala esateko.

Du-a.

Noiz jakingo duzu orduak zurekin gozatu nahi ditudala?

Genovesse, sarritan amets egiten dut. Ametsetan paradisu bat eraiki nahi, zuretzat eta neretzat.

Triste nago, Geno. Askotan pentsatu izan dut agian ez dugula inoiz elkar ezagutuko.

Imajinatzen?

Nik paradisu bat eraiki nahi, zuretzat, eta zu etorri ez. Paradisu zulatua, zapaldua.

Ez, Genovesse. Ez nazazu inoiz bakarrik utzi.

Ramon

ENARA 
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



“EDERTU” ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa.

■ **Meza santua ETBn:** Eguberri egunean telearen botoiari eragin eta, aspaldiko partez, Naitibitate eguneko meza, Zestoako elizatik emana, ikusi nuen. Atzekaldean, aldare osteko erretaula barrokoa. Ikusi bitartean, Estatu Batuetako telebangelistak etorri zitzaizkidan burura. Haien eliza eta katedralak ireki eta argiak dira, telebistaren baldintzen arabera eraikiak. Hemengoak, berriz, estuak eta ilunak, dekoradu kargaturekin askotan.

Hango predikariak showmen hutsak dira, *telebista animaliak*, zelanbait esatearren, medioa ikaragarri ondo ezagutzen dutenak eta horren arabera jantzi, orraztu, mugitu eta modulatzeko dituzte euren ahotsak. Hemengoak, oster, meza publikoari bizkarra ematen ikasitakoak dira. Vaticano II.aren ostean soilik hasi ziren jendeari begira meza ematen, eta oraindik ezer gutxi egin dute etorri berri zaien medioari, telebistari alegia, egokitzeko. Serio, monokorde eta estatuak bezain estatikoak dira. Guzti honek telebistari aplikatuta aspergarriak egiten direla esan gura du.

Ameriketako telepredikariak hau eta bestea izango dira, baina gutxitan aspergarriak. Gure artekoak, aldiz, bai. Telebistari egokitzeko ikastarotxoren bat edo beste ez litzaeieke bat ere txarto etorriko, baina Euskal Herriko abadeen batzbesteko adina ikusita -hirurogei bat urte-, ez du ematen lantegi erraza.

■ **Marko eta Bertsolari Txapelketa:** Aintzina, ugarizoen harriekin berba egiten zutenean, TVEri esker larunbat arratsaldetan negar egiteko aukera paregabea izan ohi genuen, bere amaren bila abentura amaigabeak bizi zituen Marko umearen eskutik.

Marko gizarajoaz oroitu nintzen Bertsolari Txapelketaren finalaren goizeko saioaren zati bat entzun nuenean, gaiak edozein sentibera jartzekoak ziren eta: ugazabak hil behar duen txakurtxo jaioberria zara; harezko gaztelua egin berri duzun umetxoari itsasoak desegin dizu; zaharren egoitzan egon zara lanean eta orain zuri tokatzen zaizu bertan bizitzea; hemen urte luzetan bizi izan zaren arrotzari, erretiroarekin batera Euskal Herriari agur esatea tokatzen zaizu, etabar, etabar.

Ez dakit Anoetako ikusleak negar zotinka ibili ziren, baina gai jartzailen aldetik oso erraz jo zutela sentimentalismora iruditu zitzaidan. Marko, Marko, askok ez zaitu ahaztu oraindik, antza.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Sugarlandeko expresoa:** Larunbatean, 15,20etan, Steven Spielberg zuzendariaren filmea. Antzesleak, Goldie Hawn, Ben Johnson eta Michael Sacks. Emakume batek bere senarra espetxetik alde egiteko konbenzitzen du, beraien semea, semeordetzat eman behar bait dute. Espetxean konturatzen direnean, polizia guztiak haien atzetik hasiko dira.

■ **Bartzelona- Real Madrid:** Saskibaloi programaren barruan, igandean, 18,10etan hasita. Aukera ona liga honetan bakoitzak bizi duen momentua ikusteko: madrildarrak Martinen heriotza eta gero, bartzelonarrak Norris eta Epi berreskuratu ondoren. Nor garaile?

■ **Alfred Hitchcoken ordua:** Ostegunero, gaueko 10etan, tentsioaren maixu den Hitchcoken ia ordubete pasatzeko aukera. Saio polita, non ostegun bakoitzean aurrekoarekin loturarik ez duen istorioa aurkezten zaigun. Istorio harri-garriak gainera!

bideoak



Hamarren berredurak

Eskuen irispidean dugun munduaren eskala metroaren mailakoa da. Gure inguruko objektuen mundua sei magnitude-ordenaren barruan kokazen da.

Neurrien mundu liluragarria Elhuyarren bideo honetan. Beta nahiz VHSn.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Ikusi-makusi
 Begirada pasatxo batetan ea aurkitzen duzun errepikatzen ez den irudia

Soluzioa, 21. or.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
 Martxoaren 21etik
 Apirilaren 20ra

Badakizu dena ezin dela zortearen arabera utzi. Fortuna gehienetan alde izan baduzu ere, ez zaitetz gehiegi konfidatu. Hobe duzu proiektu hori ondo landu, bada ez bada ere.



LEO
 Uztailaren 23tik
 Abuztuaren 23ra

Lagun batek sorpresa ederra emango dizu egun hauetan. Jasoko dituzun opariak baino baliagarriagoa izango da, batez ere ez zenuelako harrengandik ezer espero.



SAGITARIUS
 Azaroaren 23tik
 Abenduaren 21era

Urte berriarekin gauzak zerbait aldatuko zaizkizu, baina aldaketa handiena pixkat beranduago nabarituko duzu, eta ez da izango zuk espero zenuen bezain ona.



TAURUS
 Apirilaren 21etik
 Maiatzaren 20ra

Egoera hura eskuetatik ihes egin zitzaizun, baina mundua ez da hor amaitzen. Errua konpontzeko ez duzu oztopo gehiegi gaititu beharko.



VIRGO
 Abuztuaren 24etik
 Irailaren 23ra

Inoiz ez zara erabat konforme geratzen egiten duzunarekin. Gauzei hainbeste buelta eman ordez, hobe zenuke aldamenen duzun pertsonen gehiago arduratu.




CAPRICORN
 Abenduaren 22tik
 Urtarrilaren 20ra

Ez larritu opari asko ez badituzu jasotzen. Nahiz eta egun aproposenak izan, zeureak beranduago helduko dira eta gainera ustekabean harapatuko zaituzte.



GEMINI
 Maiatzaren 21etik
 Ekainaren 20ra

Egun hauetan iraganeko lagunak eta istorioak gogora etorriko zaizkizu. Bestalde, orain dituzun zalantzak argituz joango dira.



LIBRA
 Irailaren 24etik
 Urriaren 23ra

Etzeko giroa ez gustatu arren, atseginez aurkituko zara Gabon hauetan zure senideekin. Etzekoi bihurtuko zara opor hauetan; dena den oso ondo etorriko zaizu.



AQUARIUS
 Urtarrilaren 21etik
 Otsailaren 19ra

Betidanik izan duzun ametsa betetzeko aukera ona izango duzu. Egun hauetan pentsatu baino akziora pasatzea komeni zaizu. Ez zaitetz geldik geratu.




CANCER
 Ekainaren 22tik
 Uztailaren 22ra

Ezin izango duzu beti nahi duzuna egin. Zure inguruan daudenek, zuk beste eskubide dute, nahi dutena lortzeko. Tokatzen zaizunean amore ematea, ba eman, hobe izango da zuretzat.



SCORPIO
 Urriaren 24etik
 Azaroaren 22ra

Gogorra egin zaizu egoera horrekin apurtzea, baina ondo jokatu duzu. Apurketa horren ondorioak ezin hobeak izango dira zuretzat. Orain duzu momentua nahi zenuena egiten hasteko.



PISCIS
 Otsailaren 20tik
 Martxoaren 20ra

Aspalditik espero zenuen astea surrean duzu. Aprobetxa ezazu eta egunerokoaz ahaztu. Bada garaia zure buruaz arduratzeko.


IKATZ

ARGAZKI ETXEA

QSS

ZURE ARGAZKIAK ORDU 1ean

C	A	S	A
D	IKATZ		E
F	O	T	O
G	R		A
F	I		A



Estibaliz etorbidea 2,
Tfnoa: 27 09 22
01004 GASTEIZ

Iturriotz 8,
Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Dendaraba merkatal
zentrua
Tfnoa: 28 98 11
GASTEIZ



IKATZ
ARGAZKI ETXEA

DENDARABA
MERKATAL ZENTRUA
TFNOA: 28 98 11

ESTIBALIZ ETORB. 2,
TFNOA: 27 09 22
01004 GASTEIZ